

**Nafarroako
Lanbide Heziketako
PLAN ESTRATEGIKOA**

2017-2020



**Lanbide
Heziketa
NAFARROA**

AURKIBIDEA



SARRERA	05. or.
1. NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETA ZIFRETAN	06. or.
2. PRESTAKUNTZA-ESKAINZAREN ETA PRODUKZIO-MERKATUAREN ESKAERAREN	
ARTEKO KORRELAZIOA	26. or.
3. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK LANERATZEA	32. or.
4. LANBIDE HEZIKETAREN TESTUINGURU ESTRATEGIKOA NAFARROAN	
- Europako testuingurua	37. or.
- Estatuko testuingurua	38. or.
- Nafarroako testuingurua	39. or.
- Lanbide Heziketaren agenda politikoa Nafarroan	40. or.
5. DIAGNOSIAREN LABURPENA	42. or.
6. 2017-2020 PLAN ESTRATEGIKOA	
- Plana prestatzea	47. or.
- Plana egiteko oinarriak	48. or.
- Ardatz estrategikoak	51. or.
- Helburuak eta jarduketak	54. or.
- Planaren gobernamendu, jarraipen eta ebaluazioaren sistematika	71. or.



*Plan bat
pertonak gaitu
eta gizarteari
balioa
emateko*



SARRERA

Lanbide-heziketako sistema indartsu bat egotea funtsezko elementua da eskualdeen garapen ekonomiko eta sozialerako, bereziki egungo ekonomia globalizatuaren testuinguruan, non lehiakortasuna oinarritzko baldintza bat baita produkzio- eta zerbitzu-sektoreek bizirik jarraituko badute.

Azken krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondoren, Europar Batasunak Europa 2020 Estrategia diseinatu zuen berpizkunde ekonomiko bat ziurtatze aldera; hartan, oinarri sendoak ezarri nahi ziren enplegua handitu eta sortzeko, Europar Batasunaren egiturako ahulezia sortzen duten alderdi ekonomiko eta sozialei helduz. Estrategia horrek adimentsua, iraunkorra eta inklusiboa izan nahi du, eta ezagutzaren garapena identifikatzen du funtsezko alderdietako baten gisara planteatutako helburuak lortzeko.


Ingurune horrekin bat, Nafarroak bere Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (S3) diseinatu du; hartan, jorratu beharreko lehentasun tematikoak zehazten dira ezagutzan oinarritutako ekonomia bat lortuko duen eskualde-garapenaren eredu bat ziurtatze aldera. Ezin bestela izan, Estrategia horrek berebiziko garrantzia ematen dio Lanbide Heziketari herritar kualifikatuak lortzeko ezinbesteko elementu

gisa; izan ere, halako langileak izanen dira egokiak, oro har, produkzio- eta zerbitzu-sektoreen beharrei, eta, bereziki, Estrategiaren lehentasunezko arloei erantzuteko.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategiko bat egitea nahitaezko behar bat da Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari (S3) behar duen sostengua emateko.

Aurrekoaz gainera, Plan horrek oso kontuan hartu behar du, baita ere, lanbide-heziketaren sistemak bereganatu behar duen beste ardura handi bat: prestakuntzak bai gizartean bai hezkuntzan duen eragina, eta nola modu erabakigarrian lagundu behar duen gizartearen eta lurraldearen kohesioan.

Baldintzatzaile horiek guztiak aintzat harturik, Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa egiteko prozesu bat egin da, non horretan interesik duen sektore eta alderdi guztien parte-hartzerik handiena bilatu baita. Horren arrazoa: halako gai garrantzitsu batek, hots, Lanbide Heziketak bertan ukitutako eragile eta hartzaile guztien inplikazioa behar du, eta, orobat, ahalik eta adostasun handiena haren diseinua eta aplikazioa zehazteko orduan.



1.

NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETA ZIFRETAN

Kapitulu honetan, gai horri dagokionez Nafarroan dagoen errealitatea deskribatzen da. Horrela, Plan honetan aldezen diren esku-hartzeek ez dituzte galduko bistatik jarduketaren xede diren gertakariak.

Kste Capítulo pretende describir esta realidad, explicando aquellos datos más determinantes así como sus causas, a fin de posibilitar la adecuación de las estrategias y modalidades de intervención en función de las características y magnitud de los problemas y su contexto.

Kapitulu honek errealitate hori deskribatu nahi du, bai datu garrantzitsuenak bai haien arrazoiak azalduz; helburua da estrategiak eta esku-hartzeen modalitateak egokitu ahal izatea arazoaren eta haien testuinguruaren ezaugarrietara eta garrantzira.

Hemen aurkezten den informazioa objektiboa da –iturri fidagarrietatik dator–, bai eta egokia, garbia, garrantzitsua eta nahikoa ere.

Nafarroako Gobernuak, duela urte batzuetatik, prozesu handi bati ekiten ari zaio gure Komunitateko Lanbide Heziketako irakaskuntzak modernizatzeko aldera.


Logikoa denez, aurreko urteotan pairatutako krisi ekonomikoak eragindako aurrekontu-mugek nabarmen baldintzatu dituzte inbertsioen eta berritzeen gaineko politikak eta jarduketak. Hala eta guztiz ere, jarraian ageri den informazioan egiaztatzen da ratioak handitu egin direla, besteak beste ikasle-kopuruarenak, heziketa-zikloenak, nazioartekotze-ekintzenak, programa berritzaileenak, eta abarrenak.

Egoera hori erreparatu ahal izateko, hainbat datuaren bilakaerari erreparatu diogu, adibidez, honako hauei: inbertsioak, ikasle kopurua, prestakuntza-espezialitateak, eskola-errendimendua, dibertsitatearentzako arreta, nazioartekotzea, programa berritzaileak, praktikak enpresetan, DUAL prestakuntza, heziketa hobariduna enpresetan, gaitasun profesionalen ebaluazioa, eta abar.



HASIERAKO LANBIDE HEZIKETAKO OBRA ETA EKIPAMENDUETAN EGINDAKO INBERTSIOAREN BILAKAERA


LANBIDE HEZIKETAKO ZENTRO PUBLIKOETAKO EKIPAMENDUETAN EGINDAKO INBERTSIOAK



Azken urteotako aurrekontu-erabilgarritasunak erabat baldintzatu du ekipamenduetarako inbertsio publikoa. 2008an, 1.712.82 euroko inbertsioak egin ziren; 2012an, berriz, 372.000 euro eskas bideratu ziren inbertsioetara. Urte horretatik aurrera, azkenean egindako inbertsioen bolumena goraka doa, eta 2016an 662.071 eurotara iritsi zen.

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

LH-KO ZENTROETAKO OBRETAN ETA AZPIEGITURETAN EGINDAKO INBERTSIOEN BILAKAERA




Egoera ekonomikoa suspertu ahala, hobera egiten du, orobat, Lanbide Heziketako zentroetako obra eta azpiegituretara bideratzen den inbertsio publikoak. 2011n, 498.000 euroko inbertsioak egin ziren; 2017an, berriz, aurreikuspenen arabera, 3.557.000 eurotik gora bideratuko dira inbertsioetara.

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN BILAKAERA

Azken bost ikasturteetan, 1.066 ikasle gehiago matrikulatu dira Lanbide Heziketan Nafarroan. Handitze horrekin batera, handitu egin da, baita ere, zikloen ikasleen portzentajea unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasleei dagokienez: 2012-2013 ikasturtean, % 8,74 ziren; 2016-2017 ikasturtean, berriz, % 9,41.



Nafarroako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleen bilakaera. Banaketa mailen arabera. Maila bakoitzaren portzentajea, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez. Lanbide Heziketako ikasle guztien portzentajea, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez. 2012-2013 eta 2016-2017 bitarteko ikasturteak.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Ikasmaila	Lanbide Heziketa Berezia (LEB)		Oinarritzko Lanbide Heziketa (OLH)		Erdi-mailako Lanbide Heziketa (EM)		Goi-mailako Lanbide Heziketa (GM)		LH GUZTIRA		
	Ikasleak	LEB-ko ikasleen %, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez	Ikasleak	OLH-ko ikasleen %, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez	Ikasleak	EM-ko ikasleen %, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez	Ikasleak	GM-ko ikasleen %, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez	Ikasleak	LH-KO ZIKLOETAKO ikasleen %, unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasle guztiei dagokienez	Unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikasleak
2012-2013	197	0,19%	903	0,88%	3.801	3,71%	4.057	3,96%	8.958	8,74%	102.456
2013-2014	199	0,19%	1.021	0,98%	3.993	3,85%	4.210	4,06%	9.423	9,08%	103.770
2014-2015	205	0,20%	1.006	0,96%	4.144	3,97%	4.195	4,02%	9.550	9,15%	104.344
2015-2016	284	0,27%	1.030	0,97%	4.250	4,02%	4.283	4,05%	9.847	9,30%	105.844
2016-2017	217	0,20%	1.127	1,06%	4.187	3,93%	4.493	4,22%	10.024	9,41%	106.521

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua: Hezkuntza Sistemaren txostenak - 2012-2013 eta 2015-2016 bitarteko ikasturteak. Hezkuntza Departamentua.

Aurreko taulan eta grafikoan, Nafarroako Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketetan eta Kirol ikasketetan matrikulatutako ikasleria biltzen da, eta, halaber, haien banaketa ikasketa-mailen arabera. Lanbide Heziketa berezia, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi- eta Goi-mailak (ikasle kopurua maila bakoitzean eta haren portzentajea Zikloetako ikasle guztiei dagokienez).

Estatu guztia hartuta, % 10,05 da Lanbide Heziketako ziklo guztietako ikasleen portzentajea. Horrela, Nafarroan, unibertsitatekoak ez diren ikasketetan matrikulatutako ikasle guztiei dagokienez, Zikloetan matrikulatutako ikasleen portzentajea bosgarren baxuena da Autonomia Erkidego guztiak hartuta.

Gure inguru hurbilenean, gurekin muga egiten duten erkidegoetan ere ratio handiagoak ageri dira: Hona hemen haien batez besteko datuak: Euskal Autonomia Erkidegoan, % 10,85; Errioxan, % 11,04; eta Aragoian, % 10,40.

Autonomia Erkidego guztiak hartuta, nabarmentzekoa

da Nafarroa lehen postuan dagoela Lanbide Heziketa Bereziko heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleei dagokienez.

Lanbide Heziketaren eskaintza erlatibizatze aldera, **Es-kolatze-tasa gordina** erabiliko dugu, honako modu honetan zehaztuta:

1. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak: edozein modalitate presentzialetan matrikulatutako edozein adinetako ikasleen eta 15 eta 16 urteko biztanleen arteko portzentaje-erlazioa da.
2. Erdi- mailako zikloak: edozein modalitate presentzialetan matrikulatutako edozein adinetako ikasleen eta 16 eta 17 urteko biztanleen arteko portzentaje-erlazioa da.
3. Goi- mailako zikloak: edozein modalitate presentzialetan matrikulatutako edozein adinetako ikasleen eta 18 eta 19 urteko biztanleen arteko portzentaje-erlazioa da.

■ **ESKOLATZE-TASA GORDINAREN BILAKAERA NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAN, OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO MAILAN ETA ERDI- ZEIN GOI- MAILATAN. 2012-2013 ETA 2016-2017 BITARTEKO IKASTURTEAK.**

	Oinarrizko Lanbide Heziketa (OLH)			Erdi-mailako Lanbide Heziketa (EM)			Goi-mailako Lanbide Heziketa (GM)		
	Ikasleak	15 eta 16 urteko biztanleak	OLH-ko eskolatze-tasa gordina	Ikasleak	16 eta 17 urteko biztanleak	EM-ko eskolatze-tasa gordina	Ikasleak	18 eta 19 urteko biztanleak	GM-ko eskolatze-tasa gordina
2012-2013	903	11.870	7,61%	3.548	11.735	30,23%	3.697	11.879	31,12%
2013-2014	1.021	12.146	8,41%	3.764	11.806	31,88%	3.914	11.973	32,69%
2014-2015	1.006	12.283	8,19%	3.890	12.168	31,97%	3.859	11.934	32,34%
2015-2016	1.030	12.432	8,29%	3.948	12.316	32,06%	3.682	12.160	30,28%
2016-2017	1.127	12.679	8,89%	3.971	12.449	31,90%	3.802	12.563	30,26%

Nafarroako Estatistika Erakundea: Biztanleriaren zifrak guztira (2012tik 2016ra bitarteko urteak). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

■ ALDERAKETA: BATETIK, ESKOLATZE-TASA GORDINAREN BILAKAERA NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAN, OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO MAILAN ETA ERDI- ZEIN GOI-MAILETAN, ETA, BESTETIK, GAINERAKO AUTONOMIA ERKIDEGOETAN ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOA. 2014-2015 IKASTURTEA.

	OLH-ko eskolatze- tasa gordina	EM-ko eskolatze- tasa gordina	GM-ko eskolatze- tasa gordina
ANDALUZIA	9,70%	36,20%	29,90%
ARAGOI	12,20%	39,90%	35,00%
ASTURIAS (AsturiaskoPrintzerria)	5,80%	45,20%	48,00%
BALEAR UHARTEAK	9,20%	30,90%	19,60%
KANARIAK	10,40%	36,10%	34,60%
KANTABRIA	9,30%	51,00%	47,80%
GAZTELA ETA LEON	12,50%	44,90%	41,00%
GAZTELA-MANTXA	13,60%	38,00%	32,80%
KATALUNIA	0,00%	42,70%	41,10%
VALENTZIAKO ERKIDEGOIA	11,50%	47,40%	44,90%
EXTREMADURA	13,10%	35,60%	30,50%
GALIZIA	9,90%	50,70%	52,80%
MADRIL (Madrilgo Erkidegoa)	8,90%	29,60%	33,10%
MURTZIA (Murtziako Eskualdea)	14,00%	32,10%	30,10%
ERKIDEGOIA	12,10%	38,50%	58,60%
ERRIOXA	19,80%	44,40%	39,00%
CEUTA	24,30%	34,40%	36,50%
MELILLA	30,50%	31,70%	24,20%
NAFARROA	8,19%	31,97%	32,34%
ESPAINIA	9,10%	38,90%	37,30%


Gure Komunitatean eskolatze-tasa gordina handia dago Batxilergoan, eta, ondorioz, txikia da Nafarroako Erdi-mailako Lanbide Heziketako zikloetan dagoen eskolatze-tasa gordina.

Nolanahi ere, Erdi- eta Goi-mailako eskolatze-tasa gordinari dagokionez, Nafarroa batez bestekoaren azpitik dago, nabarmen gainera, eta, hartara, beharrezkoa da hezkuntza-neurri eta -politikak aktibatzea, lehenik eta behin gainerako Autonomia Erkidegoen batez bestekoa lortzeko, eta, bigarrenik, Europako eskualdeen batez bestekoa.

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa: Unibertsitatekoak ez diren ikasketen estatistika, 2014-2015 ikasturtea (estatistika osoaren azken seriea). Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

Azkenik, interesgarria da Nafarroako datuak eta Europar Batasuneko datuak alderatzea. Horretarako, **Lanbide Heziketako ikasleen tasa** analizatuko dugu, honela definituta: **derrigorrezko hezkuntza** bukatu eta gero, lanbidea xede duten ikasketetan matrikulatutako ikasleen portzentajea.

	2013	2014	2015
TXEKIA	88	73	73
FINLANDIA	70	70	71
AUSTRIA	70	70	70
KROAZIA		71	70
ESLOVAKIA	68	69	69
HERBEHEREAK	67	66	69
ESLOVENIA	66	67	68
LUXENBURGO	60	60	61
BELGIKA	60	60	60
ITALIA	59	56	56
ERRUMANIA	63	57	56
BULGARIA	55	56	55
ZIPRE	52	54	53
POLONIA	49	49	51
ALEMANIA	48	48	47
PORTUGAL	46	46	45
DANIMARKA	43	42	43
FRANTZIA	43	43	42
ERRESUMA			
BATUA	44	43	40
LETONIA	39	40	40
SUEDIA	47	44	38
ESTONIA	34	35	36
ESPAINIA		34	35
GREZIA	34	32	
LITUANIA	28	27	27
HUNGARIA	27	25	23
MALTA	13	13	13
IRLANDA	1		
Europar Batasuna (28 herrialde)		48	48
NAFARROA		32	32



Portzentaje hori nabarmen aldatzen da Europar Batasuneko estatuen arabera. Izan ere, Lanbide Heziketako ikasleen portzentajea % 65etik gorakoa da honako herrialde hauetan: Txekiar Errepublika, Eslovakia, Austria, Eslovenia, Kroazia, Finlandia eta Holandan, baita Italia eta Belgika iparraldeko eskualde batzuetan ere. Bestalde, 40 bat dira Lanbide Heziketan % 65 edo gorako ikasleen portzentajea duten eskualde europarrak (haietako 3tan % 75 ere lortzen da): Severozápad eta Jihozápad, Txekiar Errepublikan, eta Oberösterreich, Austrian.

Iturria: Eurostat.

IKASLEEN BANAKETA LANBIDE ARLOAREN ARABERA

Honako taula honetan ikasleen banaketa ageri da, ikasturte bakoitzean matrikulatuta dagoen zikloaren lanbide-arloaren arabera (2012-2013 eta 2016-2017 bitarteko ikasturteak).

LH-KO IKASLEAK GUZTIRA	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017	
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLAK	1,71%	1,72%	1,68%	1,80%	1,73%	173
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	15,72%	14,62%	14,72%	14,54%	14,09%	1412
NEKAZARITZA	4,04%	4,12%	4,44%	4,46%	4,16%	417
ARTE GRAFIKOAK	1,19%	1,28%	1,39%	1,35%	1,37%	137
ARTEAK ETA ARTISAU-LANAK	0,07%	0,05%	0,09%	0,13%	0,06%	6
MERKATARITZA ETA MARKETINA	6,76%	6,76%	7,06%	7,43%	7,77%	779
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	1,46%	1,79%	1,16%	1,19%	1,18%	118
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	9,77%	9,82%	10,01%	9,72%	9,45%	947
ENERGIA ETA URA	0,98%	0,99%	0,85%	1,11%	1,48%	148
FABRIKAZIO MEKANIKOA	7,36%	7,50%	7,08%	6,20%	6,81%	683
OSTALARITZA ETA TURISMOA	3,51%	4,41%	4,52%	4,61%	4,76%	477
IRUDI PERTSONALA	4,32%	4,23%	4,38%	4,17%	3,96%	397
IRUDIA ETA SOINUA	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,32%	32
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	1,04%	1,06%	1,09%	0,90%	0,83%	83
ERAUZKETA INDUSTRIAK	0,00%	0,00%	0,00%	0,15%	0,27%	27
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	4,98%	4,98%	4,86%	5,86%	6,62%	664
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA	8,91%	8,95%	8,64%	8,26%	8,15%	817
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	2,22%	2,46%	2,15%	1,89%	1,96%	196
KIMIKA	0,94%	0,91%	0,93%	0,92%	0,77%	77
OSASUNA	9,33%	8,59%	8,91%	9,19%	8,56%	858
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK	8,06%	7,83%	7,73%	8,31%	8,52%	854
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANA	4,78%	4,45%	4,44%	4,09%	4,07%	408
ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUA*	2,86%	3,08%	2,62%	2,23%	2,11%	212
KIROL IKASKETAK*	0,00%	0,39%	1,26%	1,47%	1,02%	102
	100%	100%	100%	100%	100%	10.024

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua: Hezkuntza Sistemaren txostenak - 2012-2013 eta 2015-2016 bitarteko ikasturteak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Hezkuntza Departamentuak egindako taula.

* *Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa lanbide-arloen zikloak "arlotan bakar" baten gisara hartu dira taula honetan: "Arte Plastikoak eta Diseinua" arloa. Era berean, kirol arloko modalitate eta espezialitateen zikloak ere "arlotan bakar" batean bildu dira: "Kirol ikasketak" arloa.*

2012-2013 ikasturtean, lanbide-arloko 21 ziklo eskaini ziren (Lanbide Heziketako 20 arlo eta Arte Plastikoak eta Diseinua arloa). 2016-2017 ikasturtean, lanbide-arloko 24 zikloren eskaintza bat lortu zen (Lanbide Heziketako 22 arlo, Arte Plastikoak eta Diseinua arloa eta Kirol ikasketak arloa).

Pisu handieneko lanbide-arloak, % 7tik gorakoak, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteak izan dira, handienetik txikienerako hurrenkeran: Administrazioa eta Kudeaketa, Elektrizitatea eta Elektronika, Osasuna, Instalazioa eta Mantentze-lana, Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak eta Fabrikazio Mekanikoa. 2014-2015 ikasturtean Informatika eta Komunikazioak arloa gehitu zen. Eta 2015-2016 ikasturteetik aurrera, Fabrikazio Mekanikoaren arloa % 7tik beherakoa da. Badira 7 (2012-2013 ikasturtea) eta 10 arlo bitarte (2016-2017), % 2tik beherako pisua dutenak.

Oinarrizko Lanbide Heziketan, honako hauek dira pisu handiena duten arloak: Administrazioa eta Kudeaketa, Nekazaritza, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa, Ostalaritza eta Turismoa, Irudi Pertsonala, Instalazioa eta Mantentze-lana eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lana.

Erdi-mailan, honako hauek dira pisu handiena duten lanbide-arloak (% 7tik gorakoak): Administrazioa eta Kudeaketa, Osasuna, Nekazaritza, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa eta Instalazioa eta Mantentze-lana.

Goi-mailan, honako hauek dira pisu handiena duten lanbide-arloak (% 7tik gorakoak): Administrazioa eta Kudeaketa, Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak, Merkataritza eta Marketina, Instalazioa eta Mantentze-lana, Informatika eta Komunikazioak eta Elektrizitatea eta Elektronika.

ALDERAKETA: IKASLEEN PORTZENTAJEA ESTATUKO BATEZ BESTEKOAREKIN LANBIDE ARLOAREN ARABERA.

2014-2015 IKASTURTEA	OINARRIZKO LH		ERDI MAILA		GOI MAILA	
	NAVARRA	ESPAÑA	NAVARRA	ESPAÑA	NAVARRA	ESPAÑA
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLAK	0,00%	0,00%	2,90%	2,22%	0,95%	4,99%
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	14,71%	19,20%	14,48%	14,85%	14,30%	14,48%
NEKAZARITZA	6,86%	5,80%	4,27%	2,02%	3,67%	1,63%
ARTE GRAFIKOAK	2,49%	0,60%	1,67%	0,87%	0,93%	0,58%
ARTEAK ETA ARTISAU-LANAK	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,03%
MERKATARITZA ETA MARKETINA	1,29%	5,00%	3,67%	4,05%	11,73%	6,04%
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	4,67%	1,00%	0,68%	0,29%	0,86%	1,44%
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	8,15%	14,50%	9,53%	8,87%	10,54%	6,33%
ENERGIA ETA URA	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	1,93%	0,77%
FABRIKAZIO MEKANIKOA	7,06%	7,30%	9,15%	3,37%	5,39%	2,21%
OSTALARITZA ETA TURISMOA	13,52%	8,60%	3,09%	5,69%	3,58%	5,76%
IRUDI PERTSONALA	8,75%	8,20%	6,85%	5,59%	1,10%	1,82%
IRUDIA ETA SOINUA	0,00%	0,00%	0,00%	0,96%	0,00%	3,64%
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	2,09%	0,40%	0,89%	1,35%	0,83%	0,58%
ERAUZKETA INDUSTRIAK	0,00%	0,00%	0,00%	0,02%	0,00%	0,00%
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	2,39%	15,20%	2,65%	8,10%	7,87%	10,84%
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA	9,24%	0,40%	8,35%	3,57%	9,20%	2,21%
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	8,45%	2,60%	1,74%	0,77%	0,86%	0,19%
ITSASOA-ARRANTZA	0,00%	0,02%	0,00%	0,48%	0,00%	0,48%
KIMIKA	0,00%	0,00%	1,04%	0,87%	1,10%	2,01%
OSASUNA	0,00%	0,00%	13,68%	18,71%	6,58%	11,03%
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	0,00%	0,00%	0,00%	0,01%	0,00%	1,25%
GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK	0,00%	0,30%	4,56%	5,59%	12,82%	14,58%
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	0,00%	0,60%	0,00%	0,29%	0,00%	0,38%
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANA	10,34%	10,20%	6,71%	7,91%	1,00%	2,78%
BEIRA ETA ZERAMIKA	0,00%	0,10%	0,00%	0,01%	0,00%	0,01%
ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUA*	0,00%	0,00%	1,21%	0,93%	4,77%	3,89%
KIROL IKASKETA*	0,00%	0,00%	2,90%	2,64%	0,00%	0,19%

Estatuaren batez bestekoaren azpiko proportzio batean Nafarroan eskainitako lanbide-arloak.

Estatuaren batez bestekoaren gaineko proportzio batean Nafarroan eskainitako lanbide-arloak.

Estatuaren batez bestekoaren antzeko proportzio batean Nafarroan eskainitako lanbide-arloak.

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

Oro har, heziketa-zikloetan matrikulatutako **ikasleen sexu-banaketak** portzentaje konstanteak izan ditu azkeneko bost ikasturteetan; horietan, emakumeen portzentajea % 37tik % 39ra bitartekoa izan da, eta gizonena % 61etik % 63ra bitartekoa. Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan, gizonak nabarmen nagusitzen dira, % 75 inguru izanik. Halere, Goi-mailako zikloetan gero eta txikiagoa da emakumeen eta gizonen arteko aldea: % 42-45 emakumeak dira eta % 55-58, gizonak.

Lanbide-arlo bakoitzeko sexu-banaketari erreparatuta, kontraste handiak ageri dira; lanbide-arlo batzuen matrikulan emakumeen portzentaje handia dago,

adibidez Irudi Pertsonala, Osasuna eta Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak arloetan. Beste arlo batzuetan, berriz, gizonak dira matrikularen portzentaje handi bat, esaterako honako arlo hauetan: Jarduera Fisikoak eta Kirolak, Nekazaritza, Arte Grafikoak, Arte eta Artisan-lanak, Eraikuntza eta Obra Zibila, Elektrizitatea eta Elektronika, Energia eta Ura, Fabrikazio Mekanikoa, Irudia eta Soinua, Elikagaien Industriak, Erauzketa-industriak, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze-lanak, Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak, Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak eta Kirol-ikasketak.

LANBIDE HEZIKETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN SEXU-BANAKETA

BANAKETA SEXUAREN ARABERA	2016-2017	
	G	E
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROLAK	74,57%	25,43%
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	42,49%	57,51%
NEKAZARITZA	79,62%	20,38%
ARTE GRAFIKOAK	67,15%	32,85%
ARTEAK ETA ARTISAU-LANAK	66,67%	33,33%
MERKATARITZA ETA MARKETINA	50,32%	49,68%
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	89,83%	10,17%
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	96,62%	3,38%
ENERGIA ETA URA	93,24%	6,76%
FABRIKAZIO MEKANIKOA	98,39%	1,61%
OSTALARITZA ETA TURISMOA	50,73%	49,27%
IRUDI PERTSONALA	10,08%	89,92%
IRUDIA ETA SOINUA	90,63%	9,38%
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	73,49%	26,51%
ERAUZKETA INDUSTRIAK	96,30%	3,70%
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	85,09%	14,91%
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA	96,08%	3,92%
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA ETA KORTXOA	93,88%	6,12%
KIMIKA	51,95%	48,05%
OSASUNA	29,95%	70,05%
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	13,93%	86,07%
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANA	97,55%	2,45%
ARTE PLASTIKOAK ETA DISEINUA*	45,75%	54,25%
KIROL IKASKETAK*	94,12%	5,88%

Lanbide-arlo batean sexu batek ikasleen % 70etik gorako ordezkari izanez gero, horiz nabarmentzen da.

ESKOLA ERRENDIMENDUAREN BILAKAERA HASIERAKO LANBIDE HEZIKETAN

Honela definitzen da **Lanbide Heziketako ikasketetako titulazio-tasa**: Lanbide Heziketako ziklo presentzial baten bigarren maila bukatzen duen ikasle-portzentajea, baldin eta dagokion titulua eskuratzeko baldintzak betetzen baditu.

	OLH-ko TITULAZIO TASA	EM-ko TITULAZIO TASA	GM-ko TITULAZIO TASA
2012-2013	68,91 %	95,19 %	95,40 %
2013-2014	64,31 %	97,13 %	97,17 %
2014-2015	72,53 %	93,79 %	97,17 %
2015-2016	83,60 %	90,20 %	91,82 %

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Honela definitzen da **Lanbide Heziketako ikasketetako promozio-tasa**: Lanbide Heziketako ziklo presentzial baten lehen maila bukatzen duen ikasle-portzentajea, baldin eta hurrengo ikasturtean zikloko bigarren mailara promozionatzeko baldintzak betetzen baditu.

	OLH-ko 1. ikasmailako PROMOZIO TASA	EM-ko 1. ikasmailako PROMOZIO TASA	GM-ko 1. ikasmailako PROMOZIO TASA
2012-2013	42,46 %	61,12 %	83,58 %
2013-2014	62,80 %	67,31 %	76,70 %
2014-2015	81,85 %	62,42 %	82,27 %
2015-2016	73,70 %	71,33 %	82,28 %

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Honela definitzen da **Lanbide Heziketako ikasketetako abandonu-tasa**: Lanbide Heziketako ziklo presentzial baten ikasketetan hasi berria den ikasle-portzentajea, hurrengo ikasturtean zikloan matrikulatuta ez dagoena.

	OLH-ko ABANDONU TASA	EM-ko ABANDONU TASA	GM-ko ABANDONU TASA
2012-2013	52,46 %	21,98 %	13,85 %
2013-2014	52,49 %	20,07 %	19,67 %
2014-2015	50,43 %	20,39 %	15,36 %
2015-2016	46,86 %	25,45 %	16,68 %

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

■ IKASLE-TRANSFERENTZIA LANBIDE HEZIKETAREN ETA UNIBERTSITATEAREN ARTEAN

NUPeke lehen unibertsitate-graduetan matrikulatutako ikasle-portzentajea, Lanbide Heziketako Goi-mailako adar baten titulua eskuratuta sartzen dena.

UNIBERTSITATE GRADUA	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017	Batez bestekoa
Haur Hezkuntzako maisu-maistren graduduna	41,59%	30,17%	41,18%	40,16%	42,74%	39,17%
Lehen Hezkuntzako maisu-maistren graduduna	10,38%	13,04%	10,33%	13,33%	10,83%	11,58%
Zuzenbideko graduduna	0,00%	0,95%	1,72%	2,84%	4,35%	1,97%
Lan Harremanen eta Giza Baliabideen graduduna	38,98%	24,44%	28,57%	23,33%	30,00%	29,06%
Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako graduduna	24,71%	15,75%	15,39%	19,67%	14,29%	17,96%
Informatika Ingeniaritzako graduduna	18,56%	15,96%	17,90%	14,77%	6,06%	14,65%
Ekonomiako graduduna	16,50%	8,42%	8,79%	7,29%	11,96%	10,59%
Erizaintzako graduduna	10,53%	17,20%	10,81%	15,60%	19,23%	14,67%
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduduna	15,08%	13,25%	13,59%	14,29%	9,06%	13,05%
Soziologia Aplikatuko graduduna	8,51%	9,26%	4,00%	12,00%	6,00%	7,95%
Gizarte Laneko graduduna	24,27%	19,61%	24,24%	15,39%	27,43%	22,19%
Telekomunikazioko Teknologietako Ingeniaritzako graduduna	12,90%	8,14%	7,27%	11,84%	10,61%	10,15%
Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako graduduna	27,91%	26,92%	48,39%	36,00%	35,00%	34,84%
Fisioterapiako graduduna	9,52%	26,23%	8,20%	14,52%	18,03%	15,30%
Industria Teknologietako, Ingeniaritzako graduduna	0,70%	0,67%	1,32%	2,60%	2,65%	1,59%
Informatika Ingeniaritzako graduduna	5,96%	11,00%	17,78%	20,83%	12,22%	13,56%
Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikako graduduna	14,38%	44,44%	35,94%	25,00%	17,24%	27,40%
Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako graduduna	19,51%	22,92%	17,65%	18,18%	32,00%	22,05%
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Ekonomiako gradu bikoitz internazionala	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko gradu bikoitza	0,00%	2,56%	0,00%	2,38%	2,50%	1,49%
GUZTIRA	15,00%	15,55%	15,65%	15,50%	15,61%	15,46%

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Azkeneko ikasturteetan, NUPeko unibertsitate-graduen lehen mailan matrikulatu eta Goi Teknikariaren titulu batekin sartzen den ikasleen batez bestekoa % 15etik goraxeago dago. Banaketa hori ez da homogeneoa gradu guztietan.

NUPeke 4 unibertsitate-gradutan % 25etik gorakoa da lehen mailan matrikulatu eta Goi Teknikariaren titulu batekin sartzen den ikasleen portzentajea; honako gradu hauek dira, portzentaje handienetik txikienerako hurrenkeran: Haur Hezkuntzako Maisu-Maistren gradua, Ingeniaritza-gradua Diseinu Mekanikoan, gradua

Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan, eta gradua Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoa.

Badago 6 unibertsitate-gradu bikoitz bakoitzaren bloke bat, non Goi-mailako Teknikariaren titulua eskuratuta sartzen den ikasle-portzentajea % 15etik % 25era bitartekoa baita; honako hauek dira: Gradua Gizarte Laneko, gradua Elikagai Prozesu eta Produktuen Berrikuntzan, gradua Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzan, gradua Fisioterapiaren, gradua Erizaintzan eta gradua Informatika Ingeniaritzan.

ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PROGRAMEN BILAKAERA

IKASLE-TASA, HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK IZAN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETETAKO, ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO ETA KIROL IKASKETETAKO ZIKLOETAN MATRIKULATUTA DAGOENA.

IKASMAILA	Unibertsitate-koak ez diren ikasketen estatu-tasa (%)	Nafarroako LH tasa (%)	HPBdun ikasleak LH-n. Nafarroa	LH-ko ikasleak guztira. Nafarroa
12-13	2,09	2,49	223	8.958
13-14	2,04	2,40	226	9.423
14-15	2,19	2,63	251	9.550
15-16	3,69	363	9.847
16-17	2,96	297	10.024

Adierazle horrek hezkuntza-premia bereziak izan eta Lanbide Heziketako, Arte plastikoetako eta Diseinuko, eta Kirol-ikasketetako zikloetan matrikulatuta dagoen ikasle-proporzioa biltzen du, horietan matrikulatuta dauden ikasle guztiei dagokienez. Adierazle horrentzat, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak jotzen da hezkuntza-premia iraunkorrek behar dituenak, hala balioetsi badute ekipo psikopedagogikoek, eta zentro arruntetan edo hezkuntza bereziko zentroetan eskolatuta bada.

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK IZAN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETETAKO, ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO, ETA KIROL IKASKETETAKO ZIKLOETAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA NAFARROAN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETA-MAILEN ARABERA. 2012/2013 ETA 2016/2017 BITARTEKO IKASTURTEAK.

IKASMAILA	Nafarroako LH tasa (%)	HPBdun ikasleak LH-n.	HPB - LHB	HPBdun ikasleen % LH-n	HPB - OLH	HPBdun ikasleen % LH-n	HPB - EM	HPBdun ikasleen % LH-n	HPB - GM	HPBdun ikasleen % LH-n
12-13	2,49	223	197	88,34%	16	7,17%	10	4,48%	0	0,00%
13-14	2,40	226	199	88,05%	19	8,41%	8	3,54%	0	0,00%
14-15	2,63	251	205	81,67%	34	13,55%	11	4,38%	1	0,40%
15-16	3,69	363	284	78,24%	55	15,15%	23	6,34%	1	0,28%
16-17	2,96	297	217	73,06%	49	16,50%	29	9,76%	2	0,67%

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

NAZIOARTEKOTZE-PROGRAMEN BILAKAERA LANBIDE HEZIKETAN

Nafarroan Lanbide Heziketako 20 zentro daude ERAMUS GUTUNA dutenak. Halaber, 22 zentro daude nazioartekotze-plana dutenak, eta Hezkuntza Departamentuak Erasmus+ kalitate-gutuna du.

1.403 hitzarmen daude enpresa kolaboratzaileekin, 20 herrialdetan pres-takuntza-praktikak egiteko.

*Urtero, zenbait
heziketa-zentrok
edo Hezkuntza
Departamentuak berak
hartzen dute
parte Berrikuntza
Pedagogikoaren Europako
Lankidetzaren proiektuetan.*

IKASLEEN ETA IRAKASLEEN MUGIKORTASUNA. EGONALDIAK ATZERRIAN.

IKASMAILA	IKASLEAK		Irakasleak
	Leonardo Da Vinci eta Erasmus +	Piremob, Comenius Regio eta beste batzuk	
2012-2013	122	45	7
2013-2014	116		3
2014-2015	114	129	15
2015-2016	133		4
2016-2017	135	7	15

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

IKASLEEN ETA IRAKASLEEN MUGIKORTASUNA. HARRERA NAFARROAN.

IKASMAILA	Ikasleak	Irakasleak
2012-2013	-	2
2013-2014	28	9
2014-2015	28	11
2015-2016	13	15
2016-2017	17	5

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.



HEZKUNTZA-BERRIKUNTZAKO PROGRAMEN BILAKAERA LANBIDE HEZIKETAN

Lanbide Heziketako zentroetan, berrikuntza teknologikoa, funtsean, berrikuntza-proiektuen bitartez bideratu da; hezkuntza-zentroek eta Hezkuntza Departamentuak, eta neurri apalagoan, enpresek batera sustatutako proiektuak izan dira.

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK LANBIDE HEZIKETAKO ZENTRO PUBLIKOETAN.

IKASMAILA	2011/12	2012/13	2013/14
Proiektu kopurua	7	5	4
Irakasle kopurua	32	19	32
Zentro kopurua	7	8	4
Enpresa kopurua	2	1	1
Inbertsioa	252.433 €	100.000 €	87.011 €

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

Lanbide Heziketako zentroetan, berrikuntza didaktikoa, funtsean, metodologia aktiboetan egindako lanaren bitartez garatu da.

METODOLOGIA DIDAKTIKO AKTIBOEN BERRIKUNTZA PROIEKTUAK LANBIDE HEZIKETAKO ZENTRO PUBLIKOETAN.

Proiektu mota	IKASMAILA	2014/15	2015/16	2016/17
Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzari buruzko prestakuntza - gamifikazioa		90		
Proiektuak, Oinarrizko Lanbide Heziketako lanbide-arloen arabera			20	
Lantaldea, Lanbide Heziketako praktikan oinarritutako ikaskuntza-proiektuak argitaratzeari buruzkoa			8	
Lantaldea, Lanbide Heziketako ikasgelarako metodologia aktiboei buruzkoa			4	
Lantaldea, Lanbide Heziketako proiektuen metodologiaren gamifikazio-ebaluazioari buruzkoa			4	
Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzari eta zentroetan proiektuak garatzeari buruzko prestakuntza				90


Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.



ENPRESETAN EGINDAKO LANBIDE HEZIKETA ARAUTUAREN PRAKTIKA-PROGRAMEN BILAKAERA

Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenak, "Heziketa zentroa-Enpresa espezifikoa" motakoak, heziketa-zentroek berek egiten dituzte enprekin, Hezkuntza Departamentuak onespena emanda. Hitzarmenak oniritzia eskuratuta, bi urteko iraupena du, eta luzatuzat jotzen da alderdietako batek ez badio uko egiten espresuki.


■ PRAKTIKETAN ARITUTAKO IKASLEAK IKASTURTEAREN ARABERA



Iturria: Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Urtez urte, gero eta ikasle gehiago ari dira lanbide-heziketa arautuko ikasketetan, eta, hortaz, gero eta gehiago aritzen dira enpresetako praktiketan, bai lantegiko prestakuntza-modalitatean, bai enpresako praktiketan, bai Lanbide Heziketa Dualean.

■ LH-KO HEZIKETA PRAKTIKOAN ELKARLANEAN ARI DEN ENPRESA KOPURUA



Iturria: Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Horrenbestez, gero eta gehiago dira, baita ere, praktikak egiteko lanbide-heziketako ikasleak hartu dituzten enpresak, edozein modalitatean.

Urtean 700 hitzarmen berri baino gehiago egiten dira enprekin, eta, horrela, 6.300 hitzarmen baino gehiago daude orain indarrean.




LANBIDE HEZIKETA DUALAREN PROGRAMEN BILAKAERA

2013-2014 ikasturtean, Lanbide Heziketa Dualaren lehen proiektuak ezarri ziren Espainia osoan. Proiektu horietan enpresan eta prestakuntza-zentroan konbinatzen dira irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak, txandakatuta hezkuntza-zentroaren eta enpresaren artean; horrela, ordu edo iraupen

aldakorreko egun kopuru bat ematen da batean zein bestean.


Hezkuntza-zentroak eta enpresak irakasle tutore bat izendatzen dute hezkuntza-zentroan, eta beste bat enpresan, heziketa-programa bakoitzerako.

LH DUALEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK



Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

ENPRESEKIN EGIN ETA INDARREAN DAUDEN HITZARMENAK LH DUALERAKO



Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

2013-2014 lehen ikasturte horretatik, goraka doa, baita ere, Nafarroan lanbide-heziketako ikasketa arautuetan DUAL modalitatean ari den ikasle kopurua.

Gutxienez, tituluan adierazitako heziketa-orduen % 33 enpresaren parte-hartzearekin egiten dira.

Enpresako tutorea lantegiko plantillako profesional bat da, egokia den kualifikazioa edo lanbide-esperientzia duena, eta elkarlanean aritzen da hezkuntza-zentroko irakasleekin ikasle bakoitzak garatuko duen programazioa zehazteko; era berean, ikaslea gidatu eta hark egindako aurrerabidea ikuskatzen du, eta, gainera, zentroko Lanbide Heziketa Dualeko tutorearekin koordinatzen da ikaslearen jarraipena eta balorazioa egiteko.

Orobat, goraka doa Lanbide Heziketa DUALeko ikasleak izateko hitzarmen bat egiten duen enpresa kopurua.

Urtean, heziketa-modalitate horretako 100 hitzarmen berri –hor nonbait– egiten dira enprekin; hain zuzen ere, orain enprekin egindako 350 hitzarmenetik gora daude indarrean prestakuntza-modalitate hori emateko.



LANBIDE GAITASUNA EBALUATZEKO, AITORTZEKO ETA AKREDITATZEKO PROZEDUREN BILAKAERA

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko Lege Organikoan (2002) ezarri zen lehen aldiz lanbide-gaitasuna ebaluatu, aitortu eta ziurtatzeko prozedura, baina 2009ra arte ez zen garatu haren gaineko araudirik. Prozedura hori Kualifikazioei buruzko Legeak ekarritako berrikuntza handienetako bat izan zen; izan ere, lehenbiziko aldiz, pertsonak lan-jardueraren bitartez edo gaitasunak eskuratzeko bide ez formalen bitartez egindako ikasketak modu ofizialean aitortzeko aukera egon zen.

Nafarroan, prozedura horri buruzko deialdiak egin dira legez ezarri zenetik, eta ziurtagiri ofiziala eskuratzeko aukera eman zaie zenbait sektore profesionali, bereziki legez arautu duten horiei, hala nola mendekotasuna duten pertsonen arretari, osasun garraioari edo izurriteak produktu bioziden bitartez kontrolatzeari.

Guztira, 2.100 leku baino gehiago prestatu dira akreditazio-prozeduretarako, jarraian zehazten den bezala:

URTEA	ESPARRUA	LEKU KOPURUA
2009	OSASUN LARRIALDIAK	30
		GUZTIRA: 30
2010	SUKALDEA	30
	OSASUN LARRIALDIAK	30
	SOLDADURA GALDARAGINTZA	30
	GUZTIRA: 90	
2011	SOLDADURA GALDARAGINTZA	30
	SUKALDEA	30
	OSASUN LARRIALDIAK	30
	HAUR HEZKUNTZA	30
	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	60
	GUZTIRA: 180	
2012	IGELTSEROTZAKO LAGUNTAILEA	30
	SOLDADURA GALDARAGINTZA	30
	SUKALDEA	30
	OSASUN LARRIALDIAK	30
	HAUR HEZKUNTZA	90
	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	480
	GUZTIRA: 690	
2013	OSASUN LARRIALDIAK	35
	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	90
	GUZTIRA: 125	
2014	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	150
	OSASUN LARRIALDIAK	30
	GUZTIRA: 180	
2015	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	290
	HOZTEKO INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANA	20
	BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANA	30
	BIOZIDEN APLIKATZAILEA	40
	BIOZIDEN ENPRESAKO ARDURADUN TEKNIKOA	30
	GUZTIRA: 410	
2016	MENDEKOTASUNA DUTENENTZAKO LAGUNTZA	250
	LORATEGI ETA BERDEGUNEEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA	40
	SUKALDEA	20
	BIOZIDEN APLIKATZAILEA	20
	BIOZIDEN ENPRESAKO ARDURADUN TEKNIKOA	10
	GUZTIRA: 340	
	GALDAKETA ETA ISURKETA (enpresaren ekimenez egindako deialdia)	47
2017	Gaur egun prozesuan:	
	SOROSPENA UR-INSTALAZIOETAN INDUSTRIA EKIPOAREN MUNTAKETA ETA MANTENTZE-LANA SUKALDEA	

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.



ENPRESETAN EGINDAKO HEZIKETA JARRAITU HOBARIDUNAREN BILAKAERA


Enpresetan, prestakuntzarako kredituen hobaria da langileen prestakuntza egiteko eta finantzatzeko modurik ohikoena. Langileengatik lanbide-heziketaren kontzeptuarekin kotizatzen duten enpresak dira prestakuntza-kredituen onuradunak.

Prestakuntza-kredituaren zenbatekoa enpresa horien

plantillaren tamainari, hau da, prestakuntza-kontzeptuarekin kotizatzen duen langile kopuruari lotuta egoten da.

Enpresek Gizarte Segurantzako kotizazioetan egindako hobarien bitartez gauzatzen dira prestakuntza-kreditu horiek.

■ KREDITU ERABILGARRIA ETA HOBARIA DUEN ENPRESA KOPURUA



Iturria: Enpleguko Prestakuntzarako Estatuko Fundazioa.

Moteltze argi bat antzematen da, baita atzera egite erlatibo bat ere, bai erabilgarri dagoen kredituan, bai hobaria duen enpresa kopuruan. 2016an, Nafarroako enpresen % 24k bakarrik erabili dute hobari hori.

Nafarroako enpresetarako erabilgarri dagoen kredituaren % 35 ez da erabiltzen azkenik, hau da, 4 milioi eurotik gora urtean.


Mikroenpresa txiki eta ertainak dira prestakuntza-kreditua gutxien erabiltzen dutenak (% 22k baino ez du egiten).

Enpresa pribatuen % 33k parte hartzen du hobaria duen prestakuntza-ekintzaren batean.

Ageri denez, gero eta gehiago dira parte hartzen duten langileak; aitzitik, gero eta gutxiago dira prestakuntzan emandako orduak. Horrenbestez, prestakuntza-ekintzek ordu gutxiago irauten dute (16 ordu 2015ean).

Teleprestakuntzako modalitatea bikoiztu egin da azken urteotan, eta orain gastuaren % 11,9 da.

■ PRESTAKUNTZA ORDUAK ETA PARTE HARTUTAKO LANGILE KOPURUA



Iturria: Enpleguko Prestakuntzarako Estatuko Fundazioa.

2.

PRESTAKUNTZA- ESKAINTZAREN ETA PRODUKZIO- MERKATUAREN ESKAERAREN ARTEKO KORRELAZIOA



Kapitulu honetan, Nafarroako Lanbide Heziketaren eskaintza –lanbide-arloen arabera banatuta– alderatuko dugu sektore ekonomikoekin, hiru ikuspegitik:

- Alde batetik, sektore ekonomikoetan dagoen lanpostu-kopuruarekin alderatuko dugu.
- Bestetik, sektore ekonomiko horiek Nafarroako Balio Erantsi Gordinari (eta azken batean barne-produktu gordinari) egindako ekarpenarekin alderatuko dugu.
- Eta azkenik, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian lehenetsitako sektore ekonomikoekin alderatuko dugu prestakuntza-eskaintza.

Horrela, egiaztatu nahi da lanbide-arloen prestakuntza-efortzua (ikasle kopuruan neurtua) bat ote datorren adar ekonomiko bakoitzaren balio-ekarpenarekin (sortutako enpleguaren edo balio erantsi gordinaren arabera neurtua).

Honela taldekatu dira lanbide-arloak jarduera-sektorearen arabera:

- Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak: “Nekazaritza” lanbide-arloa.
- Industria, energia barne duela: Honako lanbide-arlo hauek: ‘Arte grafikoak’, ‘Elektrizitatea eta Elektronika’, ‘Energia eta Ura’, ‘Fabrikazio Mekanikoa’, ‘Elikagai Industriak’, ‘Instalazioa eta Mantentze-lana’, ‘Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak’, ‘Kimika’ eta ‘Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lana’.
- Eraikuntza: Honako lanbide-arlo hauek: ‘Eraikuntza eta obra zibila’ eta ‘Erauzketa Industriak’.
- Zerbitzuen jarduerak: Honako lanbide-arlo hauek: ‘Jarduera Fisikoak eta Kirola’, ‘Administrazioa eta Kudeaketa’, ‘Arteak eta Artisau-lanak’, ‘Merkataritza eta Marketina’, ‘Ostalaritza eta Turismoa’, ‘Irudi Pertsonala’, ‘Irudia eta Soinua’, ‘Informatika eta Komunikazioak’, ‘Osasuna’, ‘Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak’, ‘Arte Plastikoak eta Diseinua’ eta ‘Kirol-ikasketak’.



PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAREN PISUAREN ETA SEKTORE EKONOMIKOETAKO LANPOSTUEN PISUAREN ARTEKO KORRELAZIOA

	2012-13 ikasturtea		2013-14 ikasturtea		2014-15 ikasturtea		2015-16 ikasturtea		2016-17
	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lanpostuak guztira	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lanpostuak guztira	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lanpostuak guztira	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lanpostuak guztira	Lotutako lanbide-arloen ikasleak
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak	4,04%	4,50%	4,12%	4,45%	4,44%	4,32%	4,46%	4,29%	4,16%
Industria, energia barne duela	37,18%	23,14%	37,42%	22,94%	36,58%	22,95%	34,45%	22,90%	34,88%
Eraikuntza	1,46%	6,89%	1,79%	6,13%	1,16%	5,69%	1,34%	5,58%	1,45%
Zerbitzuen jarduerak	57,31%	65,46%	56,67%	66,49%	57,82%	67,03%	59,75%	67,22%	59,52%

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Nafarroako Foru Komunitatearen kontu ekonomikoak (2005-2015 seriea). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Hezkuntza Departamentuak egindako taula.

Aurreko taulan egiaztatzen da oso antzekoak direla “Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak” jardueraren adarrari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea eta jardueraren adar horretan guztira sortutako lanpostu-portzentajea.

“Industria, energia barne” jardueraren adarrari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardueraren adar horretan guztira sortutako lanpostu-portzentajea baino 13-14 puntu handiagoa da.

“Eraikuntza” jardueraren adarrari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardueraren adar horretan guztira sortutako lanpostu-portzentajea baino 3-4 puntu txikiagoa da.

“Zerbitzuen jarduerak” jardueraren adarrari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardueraren adar horretan guztira sortutako lanpostu-portzentajea baino 8-10 puntu txikiagoa da.



PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAREN PISUAREN ETA SEKTORE EKONOMIKOEK BALIO ERANTSI GORDINARI EGINDAKO EKARPENAREN PISUAREN ARTEKO KORRELAZIOA

	2012-13 ikasturtea		2013-14 ikasturtea		2014-15 ikasturtea		2015-16 ikasturtea		2016-17
	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Ekarpena Nafarroako BEGd-ri	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Ekarpena Nafarroako BEGd-ri	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Ekarpena Nafarroako BEGd-ri	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Ekarpena Nafarroako BEGd-ri	Lotutako lanbide-arloen ikasleak
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak	4,04%	3,15%	4,12%	3,28%	4,44%	3,30%	4,46%	3,25%	4,16%
Industria, energia barne duela	37,18%	30,19%	37,42%	30,70%	36,58%	31,52%	34,45%	31,68%	34,88%
Eraikuntza	1,46%	7,35%	1,79%	7,35%	1,16%	6,83%	1,34%	6,75%	1,45%
Zerbitzuen jarduerak	57,31%	58,44%	56,67%	58,67%	57,82%	58,35%	59,75%	58,32%	59,52%

Iturria: Nafarroako Estadistika Erakundea. Nafarroako Foru Komunitatearen kontu ekonomikoak (2005-2015 seriea). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Hezkuntza Departamentuak egindako taula.

Taulan egiaztatzen denez, “Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak” jarduera-adarri lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jarduera-adar horri egozten zaion barne-produktu gordinaren portzentajea baino handixeagoa da.

“Industria, energia barne” jarduera-ektorreari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardue-ara-adar horri egozten zaion barne-produktu gordinaren portzentajea baino handiagoa da.

“Eraikuntza” jarduera-ektorreari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardue-ara-adar horri egozten zaion barne-produktu gordinaren portzentajea baino nabarmen txikiagoa da.

Azkenik, “Zerbitzuen jardue-ara” jardue-ara-ektorreari lotutako zikloetan matrikulatutako ikasle-portzentajea jardue-ara-adar horri egozten zaion barne-produktu gordinaren portzentajea baino txikiagoa da.



PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAREN PISUAREN KORRELAZIOA NAFARROARAKO S3-AN LEHENETSITZAT ADIERAZITAKO ARLO EKONOMIKOEN ARABERA

Hirugarrenik, interesgarria da, baita ere, **gurutzatzea familia guztien ikasleen datuak eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia-S3an lehenetsizat adierazitako jarduera-arloen datuak**. Horrela, aztertu egiten da lanbide-arloek egindako prestakuntza-esfortzua (ikasle kopuruan neurtua) arlo horiei dagokienez.

Honela taldekatu dira sei lanbide-arloak Arlo Ekonomiko Estrategikoaren arabera.

1. Automozioa eta Mekatronika. Honako lanbide-arlo hauek: 'Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lana', 'Instalazioa eta Mantentze-lana', 'Elektrizitatea eta Elektronika' eta 'Fabrikazio Mekanikoa'.
2. Elikadura-katea. 'Nekazaritza' eta 'Elikagaien Industriak' lanbide-arloak.
3. Energia berriztagarriak eta baliabideak. 'Energia eta Ura', 'Eraikuntza eta Obra Zibila' eta 'Erauzketa Industriak' lanbide-arloak.

4. Osasuna. 'Osasuna' eta 'Kimika' lanbide-arloak.

5. Turismo integrala. 'Jarduera Fisikoak eta Kirolak', 'Ostalaritza eta Turismoa' eta 'Kirol-ikasketak' lanbide-arloak.

6. Sormeneko Industriak eta industria digitalak. Honako lanbide-arlo hauek 'Irudia eta Soinua', 'Arte Plastikoak eta Diseinua' eta 'Informatika eta Komunikazioak' lanbide-arloaren zikloak (Web-aplikazioen garapena, Multiplataformako aplikazioen garapena).

Nafarroako S3-ko 6 Arlo Ekonomiko Estrategikoekin zuzeneko loturarik ez duten lanbide-arloak "Beste arlo ekonomiko batzuk" izenarekin taldekatu dira. Honako arlo hauek biltzen dira horretan: 'Administrazioa eta Kudeaketa', 'Arte Grafikoak', 'Merkataritza eta Marketina', 'Irudi Pertsonala', 'Informatika eta Komunikazioak' (arestian aipatutako zikloak izan ezik), 'Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak' eta 'Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak'.

	2012-13	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lotutako lanbide-arloen ikasleak	Lotutako lanbide-arloen ikasleak
AUTOMOZIOA ETA MEKATRONIKA	30,81 %	30,71 %	30,17 %	28,27 %	28,48 %
ELIKADURA-KATEA	5,08 %	5,18 %	5,53 %	5,36 %	4,99 %
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA BALIABIDEAK	2,44 %	2,78 %	2,01 %	3,11 %	2,65 %
OSASUNA	10,27 %	9,50 %	9,84 %	10,11 %	9,33 %
TURISMO INTEGRALA	5,21 %	6,53 %	7,46 %	7,88 %	7,50 %
SORMENKO INDUSTRIAK ETA INDUSTRIA DIGITALAK	4,23 %	4,48 %	4,10 %	4,22 %	4,51 %
BESTE ARLO EKONOMIKO BATZUK	41,95 %	40,83 %	40,89 %	41,85 %	42,54 %

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea. Nafarroako Foru Komunitatearen kontu ekonomikoak (2005-2015 seriea). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Hezkuntza Departamentuak egindako taula.

Nafarroako S3-ko Arlo Ekonomiko Estrategikoekin lotura duten lanbide-arloetan, batez beste, Lanbide Heziketako ikasleen ia % 60 biltzen dira. Gainerako % 40a ziklo transbertsalagoetan dago matrikulatuta, askotan 6 Arlo Ekonomiko Estrategikoei laguntzeko zikloetan (Administrazio, Merkataritza eta halakoetan).

Arlo Ekonomiko Estrategikoei lotutako ikasleen pro-

portzioa konstante samarra izan da azkeneko 5 ikasturteetan, gorabehera arinak izan baditu ere portzentaje-puntu baten inguruan; salbuespena dira "Automozioa eta Mekatronika" arloarekin lotutako zikloetan matrikulatutako ikasleak, bi portzentaje-puntu baino gehiago egin baitute behera, eta "Turismo Integrala" arloarekin lotutako zikloetan matrikulatutako ikasleak, bi portzentaje-puntu baino gehiago egin baitute gora.

3.

LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK LANERATZEA



Azken hamarkadan izandako langabezia-tasak aztertuta, argi eta garbi geratzen da hala Europar Batasunean nola Espainian langabezia oso lotuta egon dela prestakuntza mailarekin; horrela, prestakuntza funtsezko elementu bilakatu da krisi ekonomikoen garaian enplegua hobetzeko.

Horregatik hain zuzen, lan-merkatuaren beharren eta Lanbide Heziketako sistemak haiek asetzeari begira garatzen duen sistemaren arteko korrelazioak gidatu behar ditu plan honen estrategiak.

Ondorioz, beharrezkoa da egiaztatzea bi plano horien dinamikak bi ezaugarri hauek aurkezten ote dituen: batetik, prestakuntza-eskaintzaren kalitatea eta oreka ziurtatuko dituen harmonia, eta, bestetik, gure ekonomia eraginkortasuna eta lehiakortasuna.

EBko kide diren zenbait estaturen aurreikuspenak ikusita, badirudi etorkizunean falta izanen direla lanbide heziketako titulazioa izanen duten pertsonak. Hala eta guztiz ere, gazte eta haien guraso askorentzat, gaur egun oraindik ere bigarren aukera da Lanbide Heziketa ikastea.

Estatu osoa hartuta, zifrek erakusten dute Lanbide Heziketatik etorritako pertsonen laneratzea ona dela, baldin eta kontuan hartzen bada lanbide-heziketa ikasten duten pertsona guztiak gainerako ikasketei dagokienez. Izan ere, goi mailako lanbide-heziketako kontratu kopurua oso antzekoa da lehen zikloko unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonentzat egindako kontratu kopuruaren aldean.

Horrela, Lanbide Heziketako Tituludunen Lan Merkaturan Laneratzeari buruzko Txostenaren datuen arabera, zeina Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak egin baitzuen 2015ean, 2014an 16.727.089 kontratu egin ziren, eta, haietarik, 1.451.804 lanbide-heziketako ikasketei lotuta egon ziren. Lanbide Heziketako programe-tan egindako kontratu kopuru horrek % 14 egin zuen gora 2013tik 2014ra bitarte.

Bestalde, Gazteen Lan Merkaturaren Estatuko Txostenaren arabera –SEPE-Lanbideen Behatokiak egina da– honako hauek dira 2015ean zehar kontratazio gehien lortutako zazpi tituluak Lanbide Heziketaren barnean:

- Administrazio-kudeaketako teknikaria.
- Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako teknikaria.
- Administrazio eta Finantzetako goi mailako teknikaria.
- Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria.
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria.
- Ibilgailuen Elektromekanikako teknikaria.
- Merkataritza-jardueretako teknikaria.

Modu berean, Enplegarritasun eta Lanbide Heziketako Adecco Infoenplegua VII. txostenaren (2015) arabera Lanbide Heziketa da gure herrialdean gehien eskatzen den heziketa, unibertsitate-ikasketak alde batera utzita: hala adierazten dute enplegu-eskaintzen % 29,9k. Lan-eskaintzetan, hirutik batean eskatzen da Lanbide Heziketako titulazioen bat izatea.

Txosten horrek berak adierazten duenez, Lanbide Heziketaren barnean, Goi-mailak du enplegarritasun maila handiena (% 21,6; Erdi-mailak, berriz, % 8,3). Lan-eskaintza gehien argitaratzen dituen Goi-mailako titulazioa Administrazioa eta Kudeaketa da, Lanbide Heziketako profesionalen zuzendutako enplegu-eskaintzaren % 12 biltzen baitu ia. Horren atzerik, honako arlo hauek daude: Informatika eta Komunikazioak – argitaratutako eskaintzen % 9,8–, Fabrikazio Mekanikoa –% 9,4–, Elektrizitatea eta Elektronika –% 8,4– eta Merkataritza eta Marketina –% 6,3–.

Bestalde, argitaratutako lan-eskaintzetan gehien eskatutako Erdi-mailako titulazioen artean, Administrazio eta Kudeaketa nagusitzen da –% 13,4–. Gero hauek datoz: Elektrizitatea eta Elektronika –% 9,5–, Informatika eta Komunikazioak –% 9,3– eta Fabrikazio Mekanikoa –% 8,8–.

Informatika eta Internet sektorea da Lanbide Heziketako teknikari gehien eskatzen duena, eskaintzaren % 11,3 bideratzen baitaie profesional horiei. Zerbitzuak sektorea da bigarrena, % 9rekin. Industriak ere profesional horien lana eskatzen du; izan ere, eskaintzen % 8,3 sektore horretan lan egiteko da.


Ingeniaritza eta Produkzioa arloa garbi nagusitzen da Lanbide Heziketako tituludunentzako lan-eskaintzan, guztizkoaren % 27tik gorako zifrak baititu. Merkataritza eta Salmentak arloa dago bigarren lekuan, lan-eskaintzen % 24,1 bilduta,

% 10ren gaineratik daude, baita ere, Teknologia, Informatika eta Telekomunikazioa arloa eta Administrazioa eta Idazkaritza arloa, hurrenez hurren Lanbide Heziketako

profesionalentzako eskaintzen % 16,6 eta % 11,6 izanik. 2015. urtean zehar, Komertzial lanpostua da buru Lanbide Heziketa eskatzen duten lanpostuen zerrendan. Haren atzetik, Mantentze-lanetako teknikariak, Langile espezializatuak eta Mekanikoak eta Administariak daude.

Nafarroan, Estatuaren gainerakoan baino modu are argiagoan hobetzen da Lanbide Heziketako pertsonen laneratzeara:

HASIERAKO LH-KO IKASLEEN LANERATZE-PORTZENTAJEA




2012/2013 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasleen laneratzeari buruzko datuak heziketa-arloen banaketaren arabera aztertuz gero, egiaztatzen dugu zenbait ikasketetan, ikasleen erditik gora hasten direla berehala lanean. Honako hauek dira, enplegarritasunean izandako lehen-

Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

tasunaren hurrenkeran: Energia eta ura (laneratzeari buruzko datuak heziketa-arloen banaketaren arabera aztertuz gero, egiaztatzen dugu zenbait ikasketetan, ikasleen erditik gora hasten direla berehala lanean. Honako hauek dira, enplegarritasunean izandako lehen-

tasunaren hurrenkeran: Energia eta ura (laneratzeari buruzko datuak heziketa-arloen banaketaren arabera aztertuz gero, egiaztatzen dugu zenbait ikasketetan, ikasleen erditik gora hasten direla berehala lanean. Honako hauek dira, enplegarritasunean izandako lehen-

LANERATZE-PORTZENTAJEA LANBIDE HEZIKETAKO ARLOEN ARABERA. 2015-2016 IKASTURTEA




Iturria: Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

Aitzitik, beste ikasketa batzuetan, laneratze-portzentajea ez da iristen Lanbide Heziketan aritzen diren ikasleen % 33ra. Horrela, antzematen da halako bat ez

etortze dagoela, hala Nafarroan nola estatuaren gainerrakoan, heziketa-eskaintzaren eta lan-eskaintzen artean.

■ LAN ESKAINTZEN ETA IKASLEEN BANAKETA LANBIDE ARLOEN ARABERA. ESPAINIA 2014.



Antzematen da kasu jakin batzuetan alde nabarmena dagoela Lanbide Heziketako titulazio jakin batzuetan ari den ikasle kopuruaren eta titulazio horietara hobekien egokitzen diren lan-eskaintzen artean.

Bat ez etortze hori ikusita, badirudi lanbide-orientatutako behar dela informazio zehatza emateko, lanbide-heziketak modu egokian aukeratu daitezkeen.

Iturria: 03/2015 txostena. Lanbide gaitasunak eta enplegarritasuna. Ekonomia eta Gizarte Kontseilua.

Prestakuntza-eskaintzaren eta enplegu-eskaintzen arteko alde horretaz gainera, egiaztatu da, baita ere, hezkuntzako eta heziketako sistema arautuek ikasleei ematen dizkieten gaitasunek eta kualifikazioek askotan ez dituztela betetzen enplegatzaileen nahiak. Alde hori minimizatze aldera, "Libro Blanco de los empresarios españoles. La educación importa. CEOE 2017" liburuan, zenbait proposamen aurkitzen ditugu "etorkizuneko ikuspegia duen kalitateko hezkuntza bat" lortze aldera. Egokia dirudi haietako batzuk aipatzeak:

1. Lanbiderako heziketarako trantsizioa erraztea.

Egokitasun-falta bat saihestu nahi da, hain zuzen ere lan-merkatuetan gertatzen diren aldaketa azkarrek eskatutako gaitasunen eta langileek di-

tuzten gaitasunen artekoa. Helburu horretarako, besteak beste, ekintza hauek proposatzen dira: lanbide-heziketako zentroen sarea integratzea, lanbide-heziketa dualeko heziketa-ereduak bultzatzea eta lanbide-heziketa arautuaren antolamendua hobetzea.

2. Hezkuntzaren eta enpresaren arteko elkarrekiko loturak areagotzea; era berean, enpresaburuaren protagonismoa ere indartzea lanbide batean aritzeko heziketaren gobernamentu exekutiboan.

Helburua da enpresaburuak modu aktiboagoan inplikatzeko prestakuntza-programen eta -modalitateen diseinuan, lanbide-heziketen tituluen definizioan, eta sistemaren ebaluazioan.

4.

LANBIDE HEZIKETAREN TESTUINGURU ESTRATEGIKOA NAFARROAN





EUROPAKO TESTUINGURUA

LEuropa 2020an Estrategian dago bilduta Europar Batasunean enplegua hazteko Europako agenda. Estrategia horrek hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea erabili nahi du Europako ekonomiaren egiturazko akatsak gainditzeko bide gisa, eta, halaber, haren lehiakortasuna eta produktibitatea hobetu eta merkatuko ekonomia sozial iraunkorra sustatu. Estrategiaren barnean, hezkuntza- eta heziketa-politikek leku garrantzitsua hartzen dute Europar Batasunaren hazkundera eta enplegua bultzatzeko.

Testuinguru orokor horretan ere garatzen da Hezkuntza eta Prestakuntzaren Esparru Estrategikoa 2020 (ET2020). 2009an, Kontseiluak lehentasunezko lau helburu komun ezarri zituen estrategia horretarako, hezkuntza- eta heziketa-sistemen arazoei heltzeko 2020ra arte:

- Etengabeko ikasketa eta mugikortasuna gauzatzea.
- Hezkuntza eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
- Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa bultzatzea.
- Sormena eta berrikuntza handitzea, espiritu enpresariala barne, hezkuntza eta prestakuntzako maila guzti-guztietan.

ET 2020 esparruaren tarteko berrikusketan –2015ean egina– baieztatu egin ziren lau helburu estrategikoak, eta, halaber, ikuspegia birbideratu zen hala hezkuntzak nola prestakuntzak duten garrantzia islatzeko, bai enplegurako, bai Europaren oinarritzko balioak bultzatzeko, hala nola ekitatea eta integrazioa, kulturarteko gaitasunak eta herritartasun aktiboa.

Berrikusketa horrek 2015-2020 zikloan lehenestekoak diren 6 jarduketa-esparruak ere birdefinitu zituen, baita haietako bakoitzean jorratu beharreko gai zehatzak ere; horietako batzuk aipatzen dira jarraian.

1. Ezagutza, gaitasun eta ahalmen egokiak eta kalitate handikoak, ikasketa iraunkorraren bitartez lortuak, ikasketa-emaizetan zentratuak, enplegarritasunaren, berrikuntzaren, herritartasun aktiboaren eta ongizatearen aldekoak.

- Gaitasun transbertsalen eta gako-ahalmenen garapena sendotzea, bereziki ahalmen digitalak eta ekintzailetzari eta hizkuntzari buruzko ahalmenak.
- Murriztea eskola-abandonu goiztiarra.
- Bultzatzea goi mailako heziketaren egokitasuna lan-merkatuari eta gizarteari begira, bereziki lan-merkatuaren beharrak eta aterabideak hobe ulertuz eta aurreikusiz.

2. Hezkuntza inklusiboa, berdintasuna, ekitatea, diskriminaziorik eza eta gizarte-ahalmenen sustapena.

- Ikasleen dibertsitate gero eta handiagoa jorratzea, eta hezkuntza eta prestakuntza orokor inklusibo eta kalitateko baterako sarbidea hobetzea.
- Jorratzea generoatik hezkuntzan eta heziketan gertatzen diren desberdintasunen arazoa.

3. Hezkuntza eta prestakuntza ireki eta berritzaileak, aro digitalean erabat txertatutakoak.

- Pedagogia aktibo eta berritzaileen potentziala aztertzen jarraitzea.
- Gaitasun digitalen garapena jorratzea ikasketamaila guztietan.

4. Laguntza sendoa irakasle, hezitzaile, ikastetxeetako zuzendari eta gainerako hezkuntza-langileentzat.

- Hasierako hezkuntza eta garapen profesional iraunkorra laguntzea maila guztietan.
- Irakaskuntzako bikaintasunaren sustapena laguntzea maila guztietan, irakasleentzako prestakuntza-programak sortuz eta ikasketa antolatuz.

5. Gaitasunen eta kualifikazioen gardentasuna eta aitorpena ikasketa eta lan-mugikortasuna errazteko.

- Sustatzea gardentasuna, kalitatearen bermea, gaitasun edo kualifikazioen balidazioa eta haiei dagokien aitorpena, barnean direla ikasketa informalearen eta ez formalearen bidez hartutakoak.
- Laguntzea ikasleen eta irakasleen mugikortasuna.
- Elkarlan estrategikoak eta ikastaro bateratuak garatzea, bereziki goi-mailako hezkuntzaren eta lanbide-hezkuntzaren eta -heziketaren nazioartekotzea areagotuz.

6. Inbertsio iraunkorra, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna.

Lanbide Heziketari bereziki dagokionez, ET2020 estrategiak lehentasun espezifiko batzuk ezartzen ditu:

- Ikaskuntza bultzatzea lanean, haren forma guztietan.
- Lanbide Heziketarako eta denontzako kualifikazioetarako sarbidea hobetzea sistema malguago eta irekiagoen bitartez, bereziki orientazio-zerbitzu integratuak eta eraginkorrak eskainiz eta ikaskuntza ez formal eta informala balidatuz.
- Gako-gaitasunak sendotzea Lanbide Heziketako ikasketa-planetan, eta eskaintzea gaitasun horiek eskuratzeko aukera eraginkorragoak hasierako Lanbide Heziketaren eta enplegurako Lanbide Heziketaren bitartez.
- Sartzea Lanbide Heziketako irakasle, hezitzaile eta tutoreentzako aukerak, hasierako lanbide-heziketa eta lanbide-heziketa iraunkorari buruzkoak, hala hezkuntza-testuinguruan nola lantokian.

Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 estrategia horrek Europako politika asko biltzen ditu, Europako Gizarte Funttsaren zenbait programa operatibotan ikus daitekeen bezala; gainera, ezin bestela izan, Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoaren eraketa gidatu du hein handi batean, eta, horrela, Europarako planteatutako helburuak, oro har, argi eta garbi islatzen dira Plan horretan ere.



ESTATUKO TESTUINGURUA

Espanian, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak bultzada sendoa eman zion lanbide-heziketari, Kualifikazio Profesionaltan Sistema Nazionala sortu baitzen hura modernizatu eta hobetze aldera. Sistema horrek, beste helburu batzuen artean, heziketa sustatu nahi du bizitzan zehar, pertsonak gaitzeko haien behar pertsonalei eta lan merkatuaren kualifikazio-beharrei erantzunen dien jardun profesional batean ari daitezen. Horretarako, tresna-eta ekintza-sorta bat diseinatzen du markatutako xedeak lortzeari begira.

Hala eta guztiz ere, Lanbide Heziketa bultzatzeko egindako apustu sendo hori gorabehera, sistema horren bidez prestatzen den pertsona kopurua nabarmen txikiagoa da gure inguruko herrialde europar batzuetan erregistratzen direnen aldean.

Hartara, Europako estatistiketan ageri denez, Espainian derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo lehen ikasturtean lanbide heziketan matrikulatutako ikasle-portzentajea % 34 da, eta Europan % 48, 2014. urteari dagozkion datu ofizialen arabera. Are gehiago, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2015-2016 ikasturtean erregistratutako zifra ofizialetan ikusten denez, orain gutxiago dira erdi-mailako (-% 2,5) eta goi-mailako (-% 3,1) zikloetan modu presentzialean ari diren ikasleak, eta, nahiz eta gehiago den urrutiko lanbide heziketan izena ematen duen ikasle-kopurua, handitze horiek ez dituzte inondik ere orekatzen aipatutako gutxitze horiek.

2020. urtera arteko kualifikazio-eskaeraren inguruko prospektiba europarrak islatzen du, ordea, gora eginen duela nabarmen erdi- eta goi-mailako kualifikazioak dituzten pertsonen beharrak, lan-merkatuaren premiak aseko badira. Horrela, Lanbide Heziketa Garatzeko Europako Zentroak (CEDEFOP) 2013-2020 aldirako dituen aurreikuspenek iragartzen dute Espainian % 23,8 gutxituko dela kualifikazio-maila txikiko langileria (batez beste, % 3,8 murriztuko da urtean); erdi-mailako kualifikazioko langileriak (erdi-mailako lanbide-heziketa edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko bigarren hezkuntza), berriz, % 23,2 eginen du gora aldi berean, eta % 16,2k dauka kualifikazio-maila handi bat (goi-mailako lanbide-heziketa edo unibertsitate mailakoa). Oro har hartuta, aurreikusten da langileen % 50ek izan behar luketela lanbide-heziketako kualifikazio bat 2020. urterako. Hori gertatzen da berrikuntza eta aurrerapen teknologikoak lan-agertokiaren funt-

sezko elementuak direlako, eta, nahiz eta digitalizazio eta komunikazio-teknologietan gertatzen ari den aurrerabide azkarraren ondorioz lanpostu kopurua murriztu daitekeen hurbileko etorkizun batean, balantze orokorrak kualifikazio handiena duten pertsonen enpleguari egingo dio mesede.

Gure lan-inguruan gertatzen denak baieztatu egiten ditu datu horiek. Lanbide Heziketako tituludun berriek % 73ko enplegu-tasa lortu zuten 2015ean; goi-mailako bigarren hezkuntzako tituludun berriek, ordea, heziketa orokorraren arloan, % 61,2koa izan zuten. Errealitate horrekin, eta nahiz eta lanbide-heziketa aukeratzen duen ikasle kopuruak gora egin duen, hark, oraindik ere, heziketa orokorrak baino erakargarritasun gutxiago du gizartean.

Langileei bideratutako lanbide-heziketari dagokionez, errealitatea ez da oso pozgarria horretan ere; izan ere, nahiz eta 2013ra arte prestakuntza iraunkorreko jardueretan parte hartzen zuen biztanleria-portzentajea Europako batez bestekoaren gainetik egon, urte hartatik aurrera egoera irauli eta beheranzko joera antzematen da. Gainera, kualifikazio txikieneko pertsonak ere prestakuntza iraunkorreko ekintzetan hartzen dute parte, neurri txikiago batean bada ere, eta murriztu egiten da enpresetan programatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duen langile-portzentajea.

Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) ere egiaztatzen du enpleguen galera kualifikazio-maila txikia duten lanetan biltzen dela; enplegu berrietan, berriz, gero eta langile kualifikatuagoak behar dira, eta, nagusiki, lanbide-heziketako esparruaren oinarriko prestakuntza dutenak; hartara, komenigarria litzateke Lanbide Heziketan gaitasun pertsonalak sendotzea, hala nola talde-lanean aritzeko gaitasuna, egokigarritasuna, autonomia, ahalegin-gaitasuna, eta abar. Era berean, SEPEk azpimarratzen du beharrezkoa dela birkualifikatzea kualifikazio maila txikiko langileak, hain zuzen krisiaren ondoren krisi aurreko enplegu mailak berreskuratu ez dituzten produkzio-sektore horietan.

Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoak egoera orokor hori hobetu nahi du, gure Komunitatean ere gertatzen baita neurri batean edo bestean; horren froga da Lanbide Heziketa dela Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian jorratu beharreko erronka esplizituetako bat.



LANBIDE HEZIKETA NAFARROAKO TESTUINGURUAN

Europako eta estatuko testuinguruan agertutako hausnarketak aztertuta, honako hau ondorioztatzen da argi eta garbi: garapen ekonomikoa eta gizartearen ongizatea eta kohesioa lortuko bada, lortu egin behar da, neurri handi batean, bere garapen pertsonalari eta profesionalari eta orobat produkzioko eta zerbitzuetako sektoreen beharrei erantzuteko moduko prestakuntza eta kualifikazioa duen biztanleria bat.

Horretarako, garapen ekonomikoaren ikuspegitik, Nafarroako Lanbide Heziketak babesa eman behar dio S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiari. Hain zuzen ere, irizpide hori Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoak lehenesten dituen hiru ardatzetako bat da, estrategian identifikatutako erronkekin bat eta jakinda lanbide-heziketa funtsezko lehiakortasun-faktoreetako bat dela. Gainera, ardatz horren helburuek S3 estrategian identifikatutako ahulezietako bat zuzendu nahi dute, honako hau hain zuzen: erdi- eta goi-mailako lanbide heziketako giza kapitalaren falta, bai eta langileek prestakuntza iraunkorreko ekintzetan parte hartzeko duten joera negatiboa ere. Era berean, saiaturiko da prestakuntza duala bultzatzen lanbide-heziketa modernizatzeko funtsezko elementu gisa, eta, era berean, neutralizatzen eskola-abandonu goiztiarrak ekar dezakeen mehatxua, enplegarritasunari eta gizarte-kohesioari lotutako arazoek iturria baita.

2020 Nafarroako Industria Planean agerikoa denez, garrantzi handikoa da lan-merkatuaren beharrak aseko dituen kalitateko lanbide heziketa bat, langile kualifikatuak eskuragarri izateko aukera ziurtatzen lagunduko duena. Plan horretan berean, halaber, azpimarratzen da datozen urteetako prospektibak iragartzen duela gehiago izango direla erdi- eta goi-mailako kualifikazioko biztanleak, eta, horretarako, modu espezifikoan sendotu behar da ezinbestez lanbide heziketa, bai erdi-mailakoa bai goi-mailakoa. Horregatik, modu irekian planteatzen du lanbide heziketaren ospea hobetzera bideratutako ekintzak garatu beharra.

Halaber, Plan horrek ere adierazten du prestakuntza-eskaintza egokitu behar dela industriak geroan izango duen garapen-beharretara, besteak beste honako funtsezko elementu hauek ere eskainiz: espezializazio profesionaleko modulu berriak, enplegurako prestakuntzarako sarbidea ematea eskaintza eta edukiak egokituta, adar teknikoan lanbide heziketa bultzatzea, eta Lanbide Heziketa Duala sendotzea.

Nabarmentzeko modukoa da, baita ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin bat datorren beste kontu bat, Lanbide Heziketako planean bildutako elementu garrantzitsu bati buruzkoa: lan esperientziaren bidez eta prestakuntza ez-formalaren eta informalararen bidez eskuratutako gaitasunak ebaluatu, aitortu eta egiaztatzeko prozedura.

Halaber, badira beste diagnosi eta garatzeko neurri batzuk bat datozenak Nafarroan egiten ari diren beste plan estrategiko batzuekin, adibidez Nazioartekoa, Ekintzailletza edo Gazteria planekin, horietan ere aipatzen baitira Lanbide Heziketako Plan Estrategikoan aurreikusitako alderdi garrantzitsu batzuk, hala nola lanbide-heziketaren nazioartekotzea bultzatu beharra, ekintzailletza bultzatzea ikasle zein irakasleentzako prestakuntzako ekintza sistematikoen bitartez, baita ikasketa-metodologia aktiboen enplegua sendotu eta zabaldu beharra ere, adibidez, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.

Orain arte azaldutako ikuspegi bateratuak ikusita, sendotu egiten da Nafarroan Lanbide Heziketak planteatzen dituen erronkak modu egokian jorratuko direlako esperantza produkzio-sektorearen beharrei erantzuteari dagokienez; horrela, sinergiak bilatu behar dira beste plan batzuen bitartez modu paraleloan garatu behar diren beste ekintza batzuekin, inoiz ahaztu gabe lanbide-heziketak gizarte- eta hezkuntza-arloan duen izaera osagarria eta gizartetik kanpo gelditzeko arriskuan dauden kolektiboentzako arreta.



LANBIDE HEZIKETA NAFARROAKO AGENDA POLITIKOAN

Nafarroako arku parlamentarioko sentsibilitate politiko guztiak bat datoz honetan: beharrezkoa da gizartea kohesionatzeko eta egituratzeko moduko lanbide-heziketa berritzaile eta kalitateko baten aldeko apustua egitea, zeina lan-munduari lotuta egonen baita.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak berak, 2015eko uztailaren 20an egindako inbestidura-hitzaldian, jada zera aipatu zuen: “Gobernuak konpromiso estrategikoa hartuko du Lanbide Heziketarekin, baita aurrekontuen bidez ere” eta “Sendotu egingen da Lanbide Heziketako Institutuen sare publikoa”.

Dudarik gabe, bi jarrera horiek gaur egungo Gobernuak sustengatzen duten alderdiek 2015eko uztailaren 17an izenpetutako Nafarroako Gobernurako 2015-2019 lege-gintzaldia programa-akordioan zuten beren arrazoia.

Akordio horren 2. atalean –Zerbitzu Publikoei buruzkoa–, Hezkuntzaz ari dela, adierazten da Lanbide Heziketako hezkuntza-eskaintza berrikusteko eta aldatzeko konpromisoa, lurralde-egituratzearen faktorea barne; horretarako, inguruko enpresekin elkarlanean gizartearen beharrei erantzuteko moduko Lanbide Heziketa publiko bat bultzatuko da, beharrezkoak diren baliabideen horniduran inbertituz.

Modu berean, ekonomia eta enpleguaren bloke tematikoan, Lanbide Heziketarekiko konpromiso estrategikoa adierazten du, baita aurrekontuen bidez ere: “berebiziko garrantzia izanen baitu gure etorkizunean, dela nafar anitzi enplegu egonkor eta kalitatekoa lortzen lagunduta, dela enpresak lehen mailan egoteko gaituta; zer titulu eman aztertzeko diagnostikoa egitea, ehun ekonomikoaren beharrak kontuan izanik”.

Foru Parlamentuan dauden gainerako alderdi politikoak ere, jakitun lanbide-heziketak duen garrantziaz Nafarroako garapen ekonomiko eta sozialerako elementu estrategiko gisa, kalitateko lanbide heziketa berritzaile baten alde agertu izan dira sistematikoki, zeina ongi kualifikatutako profesionalak prestatuko baititu.

Horregatik, adostasun handia dago ikasketa horiek sendotu beharraz, honako modu hauetan: prestakuntza-eskaintza handituz, prestakuntza-modalitate berriak bultzatuz, kohesio soziala eta geografikoa ziurtatuz, nahikoa baliabide bideratuz azpiegitura eta teknologietara, eta, orobat, Hezkuntza Departamentuaren, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sendotuz.



5.

EGOERA- DIAGNOSIAREN LABURPENA

Aurreko kapituluetan, deskripzio zehatza, objektiboa, argia, egokia, garrantzitsua eta nahikoa eginda, Nafarroako Lanbide Heziketaren sisteman azken urteotan izandako errealitatearen berri eman da.

Deskripzio horri esker, identifikatu eta neurtu egin daitezke sistema horrek dituen behar eta arazo garrantzitsuenak, eta, halaber, jarraibideak ezar daitezke planteatutako erronkentzako alternatibak formulatzeko.

Hori guztia egiteko, Plan horretan lan-metodologia hirukoitza jarri da abian:

- Alde batetik, araudietan eta programetan izandako aurrekariak aztertu dira, Bai Nafarroakoak, bai ingurune sozial, geografiko eta instituzionalakoak. Gai horri buruzko ikerlan asko kontsultatu dira, beste plan estrategikoak berrikusi, analisi eta ikerlan espezifikoko ugari egin, jardunbide egokiak identifikatu eta aztertu... Halaber, bilerak egin dira beste Autonomia Erkidego batzuetako arduradunekin.
- Beste alde batetik, kontsulta kualitatibo hirukoitza egin da, eta, horretan, sistemaren 300 eragileren baino gehiagoren iritzia hartu da kontuan.

Horretarako, lehenik eta behin dozena bat lan-mahai osatu dira, azken hilabeteotan zenbait aldiz bildu direnak modu sistematikoan lan egiteko.

Bigarrenik, hamar lan-saio egin dira mota guztietako elkarte eta enpresa-sektoreekin.

Eta hirugarrenik, elkarrizketa sakonak egin dira ikerketa, akademia eta enpresa munduetako hainbat aditurekin.

- Azkenik, aurreikusten da Plan horretan sartuko direla planaren beraren onuradunak, herritarrek parte har dezaten beharrak eta soluzioak lehenesteko lanean; horrela, iritzia ematera gonbidatuko ditugu buelta bikoitz batean: lehenbizi, 600 ikasle eta familia baino gehiagori eginen zaien inkesta baten bidez, eta, gero, herritar guztiek parte hartzeko prozesu baten bitartez.

Lan-metodologia horretatik abiatuta, zenbait sormen-eta hausnarketa-fasetan zabaldu dira ideien ekarpean eta soluzioen identifikazioan ahalik eta adostasun handiena lortzeko tresnarik egokienak.

Horren guztiaren emaitzari esker, identifikatu eta sailkatu egin daitezke lortutako usteak eta konklusioak, eta, ondorioz, modu eskematikoan eta sistematizatuan zehaztu da Nafarroako Lanbide Heziketaren egoerari buruzko DAFO diagnosi bat.

Diagnosi horrek faktore estrategiko kritikoak zehazten ditu, eta, horiek identifikatu eta gero, palanka gisa erabili nahi ditu aldaketak bultzatzeko. Helburu horrekin, indarguneak sendotu eta sistemaren ahuleziak minimizatuko dira, kanpo aukerak sortutako abantailak baliatuta eta hobetzeko ekimenen eraginkortasuna murriztuz dezaketen ingurunearen mehatxuak desagerraraziz edo murriztuz.

Honako hauek dira, laburbilduta, Lanbide Heziketari buruzko DAFO diagnosi horren ondorio nagusiak:



AHULEZIAK

1. Hasierako LH-ri buruzko informazio eta orientazio eskasa ikasleentzat; horrek, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainen faltarekin batera, ez du laguntzen gizar-tearen ikuspegi estereotipatua desagerrarazten, zeinak LH-a "bigarren aukera" gisa ikusten baitu.
2. Aurreikusteko moduko prestakuntza-eskaeraren eza-gutza eskasa. Enpresa-beharrak aztertzeke mekanismoen falta.
3. Malgutasun eta bizkortasun gutxi prestakuntza-eskaintza eguneratzeko orduan. Ia ez dago espezializazio prestakuntza-eskaintzarik.
4. Ahalegin eskasa azpiegitura eta ekipamenduak berritzeko, baita berrikuntzan, ikerketan eta hizkuntzen prestakuntzan ere.
5. Zentroen eta bertako instalazioen eta ekipamenduen ordutegiak gutxi erabiltzea.
6. Kudeaketa deszentralizatuaren autonomia falta zentro integratuetan.
7. Oraindik ere, harreman eta konpromiso txikia enpresa-munduarekin honako arlo hauei errazteari begira: prestakuntza-praktikak, irakasleen ezagutzen birziklapena eta Lanbide Heziketatik etorritako pertsoneniko lan-bitartekaritza.
8. Berritze-falta hasierako LH-ko irakasleen plantillan, eta elkarlan eskasa enpresa-esparruko hezitzaile espezializatuekin programa espezifikoetarako.
9. Irakasle eta enpresako tutoreentzako prestakuntza-plan baten falta, baita trebetasun didaktikoei buruzko plan batena ere.
10. Moteltasuna administrazio-prozesuetan, eta konplexutasuna enplegurako prestakuntza-kudeaketan; horrek gogogabetu egiten ditu enpresa txiki eta ertainak prestakuntza horrekiko konpromisoan.



MEHATXUAK

1. LH-k gizar-teari ematen dion balioaren eza-gutza falta; horrek iraurarazi egiten du enpresetan eta familietan prestakuntza horretaz dagoen ikuspegi estereotipatua.
2. Emakumeen eta gizonen presentziaren desoreka LH-ko ziklo askotan; prestakuntza-etapan sendotu egiten dira lan arloko estereotipoak.
3. Enpresen arteko elkarlan eskasa prestakuntza-eskaeren identifikazioan, modalitate berriei (duala, txandakatu) emandako bultzadan, LH-ko zentroetarako berrikuntzaren eta ikerketaren garapenetan, zentroentzako baliabideen ekarpenean, lan-zentroko prestakuntzan...
4. Zailtasunak etengabeko prestakuntza bateragarri egiteko lanarekin edo familia-kontziliaziotik eratorritako beharrek.
5. Lanpostuetan infrakualifikatuak edo ginkualifikatuak dauden pertsonak egotea. Enpresek eta administrazio publikoak berak LH-ko eskulan kualifikatu gutxi eskatzea.
6. Aurrekontu-mugak; horren ondorioz, mugatu egiten dira, besteak beste, honako hauek guztiak: enplegurako prestakuntza-ekintzak, LH-ko azpiegituren eta ekipamendu teknologikoaren berrikuntza, prestakuntza-eskaintzaren eguneraketa, irakasleen prestakuntza-planak...
7. Burokratizazio administratiboa gero eta handiagoa da diruz edo hobariz lagundutako prestakuntza-ikastaroak egiteko enpleguari begira; hartara, gastatu gabeko aurrekontu-kredituak gelditzen dira, baina erantzun gabeko beharrak ere.
8. Enplegurako lanbide heziketako hornitzaile pribatuak agertu dira, erregiotik kanpokoak, bertako produkzio-ingurunea ezagutzen ez dutenak eta ingurunearen beharretara egokitu ez dauden ikastaro estandarizatuak eskaintzen dituztenak.
9. Lehiakortasuna unibertsitate-esparruarekin ikasleak ekartzeari begira.
10. Enpleguaren egoera hobetuz gero, lanpostuen eskaintza zabalago bat sor daiteke, eta, ondorioz, bukatu gabe utz daiteke prestakuntza.



INDARGUNEAK

1. Nafarroa guztian zehar zabaltzen den lanbide-heziketako zentroen sarea, prestakuntza-eskaintza zabala eta ekipamendu onargarriak dituztenak.
2. Esperientzia handiko irakasleak, kezka profesionalak dituztenak.
3. Enpresa munduko espezialista sorta zabala dago, lanbide-heziketarekiko konpromisoa dutenak.
4. Kalitateko prestakuntza, halako ospe ona duena enpresetan, lanean berehala hasteko moduko kualifikazioa eta aukerak ematen dituena.
5. Gero eta gehiago egotea, lan-zentroetan, prestakuntza praktikoa eta prestakuntza duala.
6. Lan-zentroetan, prestakuntzarako lan-hitzarmen egonkor asko egotea eskualdeko eta atzerriko enprekin.
7. Prestakuntza nazioartekotzeko programak gero eta gehiago zabaltzea, ikasleen zein irakasleen mugikortasuna ahalbidetzen dutenak.
8. Eskualdean, prestakuntzaren hornitzaile diren hezkuntzako eta enpleguko administrazioen arteko koordinazio gero eta handiagoa egotea.
9. Autonomia normatibo erlatibo bat, zenbait garapen arintasunez gauzatzeko aukera ematen duena.
10. Bat etortzea hasierako lanbide-heziketako prestakuntza-espezialitateen eskaintza eta merkatuaren beharrak.



AUKERAK

1. Lanbide Heziketaren aldeko apustu politikoa eta estrategikoa. Hasierako eta enplegurako Lanbide Heziketaren aldeko apustua egiten duten beste plan estrategikoko batzuen onespina.
2. Lanbide Heziketatik datozen profil profesionalen eskaera handitzea. Eboluzio teknologiko azkarra, etengabeko kualifikazio eta birkualifikazio profesional konstantea exijitzen duena, askotan labur dirauen eta berehalako lanbide-irteerak dituen prestakuntza espezifikoko batez.
3. Enpresen produkzio- eta lehiakortasun-ereduen aldatzea, haiek animatzen dituztenak LH-ko zentroen interrelazioa eta laguntza bilatzera.
4. Enpleguaren eskaintza publikoaren desblokeoa, plantillak gaztetzeko aukera eta LH-ko zentroetan espezialista berriak sartzeko aukera emanez.
5. Prestakuntza-zentroetan eskainitako gaitasun transbertsalen eskaera gero eta handiagoa: ekimena, ekintzaileritza, talde-lana, hobetzeko grina, hizkuntzak...
6. Sare-lana eta enpresa-esparruarekiko eta beste prestakuntza-hornitzaile batzuekiko koordinazioa handitzea.
7. Harreman instituzionaleko esparru berrien ezarpena, lankidetzak bultzatzekoak lanbide-heziketako gaietan. Eskualde arteko eta nazioarteko lankidetzak-programa berriak, lan-merkatuak modernizatu eta haien gaitasunen garapenaren bitartez kualifikazioa eta enplegua bultzatu nahi dituzten Europako ekimenak garatzekoak.
8. Gaitasunen akreditazio-prozedurak sendotzea, etengabeko kualifikazioa eta birkualifikazioa estimulatzen bizitzan zehar.
9. Aurrekontu-erabilgarritasunak hobetzea lanbide-heziketako programa berriak abian jartzeko, ratio ekonomikoak hobetzeagatik, enplegu-programak hobeki kudeatzeagatik eta etengabeko prestakuntzarako funtsak hobeki erabiltzeagatik.
10. Nafarroako Gobernuaren gaitasun normatiboa prestakuntza praktikoa eta lanbide-heziketako ikasleen kontratazioa pizteko.



NAFARROAKO

**LANBIDE
HEZIKETAKO
PLAN
ESTRATEGIKOA
2017-2020**



PLANA SORTZEA

Lanbide Heziketa elementu giltzarri bat da produktibitate- eta espezializazio-estrategia berriek dakartzaten erronkei aurre egiteko. Garapen sozialaren, enpresen lehiakortasunaren, produktibitatearen eta espezializazioaren egoera berriak direla eta, komeni da lehen tasun berriak zehaztea honako arlo hauetan: prestakuntza-eskaintza eta horren modalitateak, prestakuntza-mailak, Lanbide Heziketako zentroen eredia eta haien misioa berritzea, enpresekiko harremana, administrazioarekin eta gobernantzarekin lotutako hainbat erronka, etab.

Plan honen bidez, horrek guztiak dakartzan arazoei erantzun nahi zaie, hein batean bada ere. Horretarako, Lanbide Heziketaren kalitatea eta garrantzia indartuko dira, baita bizitzan zeharreko ikaskuntza ere, hazteko eta kohesio sozialerako palanka diren aldetik. Hartara diseinatu den prozesuan, egungo egoera aztertu eta ebaluatu da, diagnostikoa egiteko; horren ostean, abiapuntu hori gainditu eta hobetzeko jarduketak zehaztuko dira arrazoizko eran, erronkei egoki erantzuteko.

Esku-hartze publiko orok estrategia bat behar du, eta horren ondorioz, erdietsi nahi diren helburuak, erabili beharreko metodoak, ekintzen eta aukeren lehentasuna, eta hala baliabideak nola ardurak finkatu behar dira. Zalantzarik gabe, horren guztiaren ondorioz hartu behar diren erabakiek eragina izango dute epe luzera.

Estrategiak plan estrategikoen bitartez bideratu daitezke. Plan estrategikoak tresna aproposa dira horiek egiten dituenak (erakundea) era koherente eta sistematizatuan azter eta hausnar dezan egungo errealitateari buruz (nor da erakundea eta non dago), zer egiteko asmoa duen eta nora iritsi nahi duen (helburuak), nola lortu (estrategia), zer jarduketaren bidez (ekintza-ildoak), zer bitarteko dituen (baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak) planifikatutakoa gauzatzeko (urteko plana, aurrekontua, egutegia...), eta nola jakin helburua erdietsi dela (ebaluazioa).

Logikoa denez, argi egon behar du erronka bat, arazoren bat edo doikuntzaren bat egiteko beharra dagoe-

la Nafarroako Lanbide Heziketaren plangintza berria egin behar dela erabakitzeke. Hori guztia argi geratu da dokumentu honen aurreko ataletan; arazoak eta eraginkortasunik ezak modu objektibo, argi eta nabarmenean identifikatu eta dimentsionatu dira. Hemendik aurrera, dokumentu honen bidez adierazi nahi da zein diren erdietsi edo konpondu beharreko erronka edo helbururik garrantzitsuenak eta zein diren aukerarik aproposenak, denak hierarkizatu eta aukera egoki eta bideragarrienak hautatu ondoren.

Prozesu horretan, era berean, aurrez finkatu behar izan da zer xede eta helburu erdietsi nahi diren irtenbide horiekin, helburuak erdiesteko jarduketa posibleak adierazi behar izan dira, eta garatu beharreko jarduketak alderatu, aztertu eta lehenetsi.

Azkenik, Planaren jarraipena, neurketa eta ebaluazioa egiteko sistema finkatu da; horretarako, beraz, gauzatze-mailaren eta emaitzen adierazleak sortu dira.

Jarduketa horiek diseinatzeko, tartean dauden eragile garrantzitsuenek hartu dute parte, eta gerora, baita herritarrek ere, oro har. Lehen fase honetan, interesa zuten eragile ugari hartu dute parte; zehazki, batzuk aldi behin bildu diren lan-mahaietan aritu dira, eta beste batzuei inkesta edo elkarrizketa egin zaie banaka. Bigarren fasean, herritar guztiek parte hartzeko prozesu irekia abiatu da. Batzuen eta besteen ekarpenekin, ez dago zalantzarik Planak aukera guztiak dituela helburua erdiesteko: pertsonak trebatu eta gizarteari balihoa gehitu.



PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO OINARRIAK

Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa egitean, lehentasuna pertsonen prestakuntza bermatzea izan da. Prestakuntza horrek, halaber, garapen pertsonaleko eta profesionaleko beharrei erantzuten zaie-la ziurtatu behar du, baita gure Komunitateko sektore produktiboko eta zerbitzuen sektoreko enpresen kualifikazio-beharrei ere. Gure eremu geografikoan, mende honetako lehen hamarkadaren amaieran gertatutako krisi ekonomikoa dela eta, prozesu jakin batzuk bizi izan ditugu; horiek agerian ipini dute herritar kualifikatuen behar larria dugula, eta herritar horiek ehun produktibo sendo baten euskarri izan behar dutela, azken urteotako kontrako egoerei aurre egiteko moduan. Era berean, frogatu da lotura estua dagoela langabeziaren eta desegituraketa sozial mailakatuaren artean; hortaz, prestakuntza elementu giltzarri da gizarteratzeko eta kohesio soziale-rako. Hain zuzen ere, soldatapeko enplegu egonkorra, ordainsari duina duena, gizarteratzeko mekanismo nagusietako bat da oraindik ere. Izan ere, babes sozialerako mekanismoetako asko, hein handi batean, enpleguarekin lotuta daude gaur egun ere.

Laneratzea orain baino hobea izan dadin, prestakuntza-maila jakin batzuetara iritsi beharra dago. Gainera, sarritan, kualifikazio egokia lortzea modu ezin hobea da bazterketa sozialeko egoerak saihesteko, mesedegarria baita beharrezkoak diren kohesiorako eta eboluzio sozialerako. Hartara, prestakuntza garrantzitsua da gizarteratzeko prozesuetan.

Egia da, dena den, kontratazioetan gertatzen den gehiegizko kualifikazioa benetako arazo bat dela; hala eta guztiz ere, egia da ere lanpostu asko lortzeko ez dela aski zeregin jakin bat egiteko gaitasun praktikoa frogatzea, baizik eta iragazki jakin batzuk erabiltzen direla, ofizialki aitortutako kualifikazio bat duten pertsonak saritzen dituztenak.

Aldi berean, baina, berretsi behar da prestakuntzak inguruko mundura irekita egon behar duela; bereziki, teknologia berriak martxan jartzearen eta zenbait sektore produktiboren nagusitasun mailakatuaren ondoriozko erronketara.

Plan honetan defendatzen da Lanbide Heziketak oraingoak baino aukera hobek sortu behar dituela pertsonak lan-merkatura erraz sartzeko edo bertan jarraitzeko. Horrezaz gain, pertsona horiei balio handiagoa emateko aukera eman behar du, haien lan-egonkortasuna eta, ziur asko, enpresen arloan aurrera egiten dutela bermatzeko. Orobat, zalantzarik ez dago: langileen gaitasunak eta konpetentziak hobetzen badira, haiek zerbitzuak ematen dituzten enpresen lehiakortasunak hobera egingo du, eta beraz, baita Nafarroako ekonomiak ere. Azkenean, lagungarri izango da gure Komunitateko kohesio sozialerako, ziur.

Langileek prestakuntza egokia izan behar dute teknologia produktibo horien eskaerei erantzuteko, izan beritasuna direlako eta horiei erantzuteko ongi hezita daudelako, izan enpresa berriak sortzeko edo langileak berritzeak dakartzan betebeharrak betetzeko. Horrenbestez, prestakuntza egokia izatea oinarritzkoa da Nafarroan finkatuta dauden enpresen egungo eta etorkizuneko lehiakortasuna ziurtatzeko.

Aldi berean, eta berehala, digitalizazio- eta robotizazio-prozesu azeleratuak gure bizimodua eta lan egiteko modua aldatuko ditu, eta horren ondorioz, etengabe egokitu beharko dira langileen trebeziak eta gaitasunak. Beraz, alde aurretik eta etengabe aztertu beharko dugu etorkizunean nolako prestakuntza behar izango den merkatu produktiboaren beharrei aurre egiteko.

Hori guztia aintzat hartuta, Plan hau egiteko erabiltzen diren oinarriek helburua erdiesteko erabakiak bideratu behar dituzte, dagozkion baliabideak esleituz eta ekintza nagusiak finkatuz. Nolanahi ere, aintzat hartu behar da estrategia horrek dinamikoa eta parte hartze-ko modukoa izan behar duela inguru produktiboaren aldakortasuna eta espezializazioa direla bide, eta aldi berean, Planaren helburuaren aldeko ingurua sortu behar duela. Horrenbestez, oinarri horiek zenbait printzipio inspiratzaile izan behar dituzte euskarri.

Horretarako, eta adierazi den testuingurua kontuan hartuta, honako bost oinarri hauek erabili dira Plana egiteko, etenik gabeko kiribil batean elkarri lotuta daudenak:

I. Kualifikazioa eta prestakuntza profesionala ziurtatzea, eta horiek enpresen arloko erronka berrietara egokitzea

Europa 2020 Estrategia hazkunde ekonomiko “adimentsua, iraunkorra eta integratzailea” sustatzeko sortu zen; horren barnean, EBrako helburu jakin batzuk finkatu dira, bai eta berrikuntzan, enpleguan, heziketan, gizarteratzean eta energian jarduteko esparrua ere. Hura eskualdeetan garatzeko, gainera, espezializazio adimentsuaren kontzeptua nabarmentzen da.

Hortaz, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak garapen ekonomikorako eredu bat dira, eta horien arabera, baliabideak kontzentratu behar dira eskualde bakoitzak lehiaketa-abantaila garrantzitsuak dituen arloetan.

Komunitateko lehiaketa-faktore batzuk zehaztu dira. Hala, asmoa faktore horien alde egitea da, eta logikoa denez, Plan hau estrategiarekin lotuta dago eta horren zerbitzura jartzen da. Ekintza estrategikoa norabide berean orientatzea eta instantzia administratiboetan egiten diren jarduketak koordinatzea erantzukizun publiko eta eraginkortasuneko oinarritzko printzipio bat da, beraz.

Lanbide Heziketa garatzeko Europako Zentroaren arabera (CEDEFOP), Espainian, kualifikazio-maila baxua duten langileek % 29 egingo dute behera 2013tik 2020ra bitartean; kualifikazio-maila ertaina dutenek, aldiz, % 23,2 egingo dute gora; eta azkenik, kualifikazio-maila altua dutenen ehunekoa % 16,2 handituko da. Hori dela

eta, pertsonen kualifikazioa eta birkualifikazio etengabea ziurtatzeko erronkak orientatu egin behar ditu hala Lanbide Heziketako sistema integratuko ekintzak nola enplegu-politika aktiboak.

II. Lanbide Heziketatik abiatuta, laneratzeko mesedegarriak diren tresnak bultzatzea

Adierazi den eran, prestakuntza ezinbestekoa da laneratzeko egokia izan dadin. Haatik, txertatzea orain baino askoz azkarragoa izango da curriculumeko edukiak eta prestakuntza-metodologia sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen eskaeretara egokitzen denean, baldin eta lan-bitartekaritzako mekanismoak ere egoki badabilta. Horren haritik, zeharkako konpetentziak bereganatzea bultzatu behar da, garapen profesionalerako oinarritzko tresnen bitartez; horretarako, metodologia aktiboak erabili behar dira Lanbide Heziketako ikasleen prestakuntza-prozesuetan. Zeharkako konpetentzia horien bidez, langileek orain baino errazago txerta ditzakete konpetentzia teknikoen bilakaera prestakuntzako baliabideetan, bilakaera hori gero eta azkarrago gertatzen ari da eta. Lehentasun hori gogoan, kontuan hartu behar dugu prestakuntza-etapa jakin batzuek hezkuntzako eta heziketako osagai garrantzitsuak ditzutela, eta horietan, hezkuntzako eta prestakuntzako sistemetan mantentzeko eta aurrera egiteko moduan lan egin behar da.

Horrenbestez, laneratzeko egokia dela adieraz daiteke prestakuntzak kualifikazio aproposa ematen dionean pertsona bakoitzari, jardun profesional ona gauzatzeko modukoa, lan-ingurune jakin batean eta denbora-testuinguru egokian. Horrekin guztiarekin batera, espezializazio profesionaleko printzipioek ziurtatuko dute pertsona bakoitzaren laneratzeko ibilbidean tratamendua banakakoa, arina eta eraginkorra izango dela.

III. Nafarroako enpresen lehiakortasuna handitzea

Merkatuko ekonomia honetan, eta munduan lehiaketa nagusi izanik, Nafarroako enpresek beren gaitasunak eta lehiaketa-posizionatzea hobetu behar dituzte. Hobekuntza horrek inguruko egoera aldakorrera egokitu behar du beti, eta beraz, etengabea eta dinamikoa izango da. Hobekuntza horren barruan, langileen gaitasunari, kualifikazioari eta moldagarritasunari eragiten dioten egoerak funtsezkoak dira.

Lanbide Heziketak enpresetatik gertu egon behar du, haien eskaerak eta beharrak berehala lotu daitezen prestakuntza-eskaintza espezializatuarekin. Horren ondorioz, mekanismo jakin batzuk jarri beharko dira martxan, honako hau guztia egiteko aukera emango dutenak, besteak beste: sektore ekonomikoetan sortzen diren etengabeko erronkei arin eta malgutasunez erantzutea; ekintzailetza, berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzea; enpresekiko harremanen dinamika hobetzea; eta errealitate berrietara erraz moldatzen diren heziketa-zentroen eta curriculumaren ereduak sortzea.

Jarduketa horiek ahalik eta eraginkorrenak eta efizienteenak izan daitezen, gogoeta honen erdian enpresek parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko printzipioak daude, prestakuntza-prozesuaren gakoa diren aldetik. Horren guztiaren eraginez, lankidetzaren harremanak areagotu beharko ditugu, elkarrekiko konfiantzaren, informazio-trukearen, ekintzen koordinazioaren eta lankidetzaren hitzarmenen bidez.

IV. Gure Komunitatearen iraunkortasun ekonomikoa ziurtatzea

Nafarroako edozein plan estrategikotan, hazkunde adimentsu, inklusibo eta iraunkorraren aldeko Europa 2020 Estrategian jasotako ereduak garatu behar da, bai eta munduko garapen iraunkorrerako Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agenda ere.

Hortaz, oinarri moduan, Plan honen azken helburua Nafarroak emaitza ekonomiko positiboak izatea da, denon onurarako, kontu ekonomiko publikoak onbidertuta egoteko, Komunitateak sozioekonomikoki hobera egiteko... Horretarako, ehun produktiboa garatzen lagundu nahi da, eta pertsonen talentua indartu.

Horren inguruan abiarazten diren jarduketek ekintza publikoko plangintza-printzipioa izan behar dute oinarri, programen jarraitutasuna, jarduketan gero eta kalitate handiagoa, eta emaitzen ebaluazioa eta etengabeko berrikuspenera ziurtatzea, etenik gabeko eta ibilbide luzeko prozesu batean.

V. Nafarroako kohesio soziala hobetzea

Edozein estrategia publikoren azken helburua Nafarroa kohesionatu baten alde egitea da, hala gizarteari nola lurraldeari begira, eta hori ere agerian ipini behar da Plan honetan. Hartara, funtsezkoa da eta etengabekoa izan behar du pertsonen aldeko apustuak, eta alderdi hauen aldeko apustuak ere bai: pertsonen aniztasuna eta berezitasuna, behar sozialak, aberastasunaren bidezko banaketa, eta kohesio sozialeko nahiz lurralde-kohesioaren dinamika horiek jasotzen dituzten adierazleak une oro aintzat hartzea, prestakuntza-ekintzak bat etor daitezen.

Gizarte batean lortutako heziketa-mailak agerian ipintzen ditu gizarte horren oparotasuna, bizi-kalitatea eta etorkizuna. Heziketa eta prestakuntza pertsonen oinarriko eskubide bat dira, nor bere bizitza-proiektua garatzearekin lotuta.

Pertsonen laneratze egokia funtsezkoa da kohesio sozialerako, eta ildo horretatik, Lanbide Heziketa funtsezkoa da laneratzea bideratzeko.

Horren oinarri den erantzukizun publikoko printzipioaren arabera, batik bat botere publikoei dagokie pertsonen bizitzako baldintza duinak izateko eta gizartearen bete-betearen parte hartzeko eskubideak ziurtatzea.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Adierazi bezala, eskuarki, nahi den ikuspegia eta finkatutako helburua erdiesteko modua jasotzen dira plan estrategikoetan, eta horren barnean, bide horretan egin beharreko urratsak. Horregatik, nora joan nahi dugun eta horra nola joan jakin beharra dago; helburua zein den, finean.

Lanbide Heziketaren plangintzari heldu zaionean, ikuspegi jakin batetik begiratu zaie analisi osoari, gogoetari, helburuak finkatzeari, jarduketari eta behar diren baliabideei. Hala, ikuspegi horrek administrazioaren antolakuntzarekin lotuta dauden elementu hauek hartzen ditu kontuan:

- Informazioa eta orientazioa
- Prestakuntza-eskaintza integratua, Lanbide Heziketako politikak koordinatuta
- Zentroen eredia eta baliabideak optimizatzea
- Berrikuntza teknologiko aplikatua eta berrikuntza metodologikoa

Gure kasuan, ikuspegi hori lagungarri izan zaigu parte-hartzea antolatzeke, bai diagnostikoaren fasea egoki gauzatzeko bai eragile-multzo heterogeneo baten parte-hartzea erraztu eta indartzeko, jarduketa-ildoak zehazteko fasean.

Alabaina, azkenean Planean jaso diren ekarpenak antolatu eta sistematizatzean, Nafarroako Lanbide Heziketa hobetzeko nora heldu nahi dugun jasotzen duten ardatzak eta helburuak egituratzeko ikuspegia ez da hain akademikoa edo administratiboa izan; aldiz, sistema produktiboa eta laneratzea izan ditugu gogoan.

Ardatz estrategiko deritzegu Plana garatzeko oinarritzko ildo edo bideei; horiek Planaren izateko arrazoian sakontzen dute funtsezko helburua erdiesteko, eta Pla-

naren garapena jarduketa-ildo handietan antolatzen dute. Ardatz horiek lagungarri izan behar dute Plan Estrategikoa txukun eta garbi antolatzeko.

Planaren barruan, ardatz estrategikoak jarduketa-programa multzoak dira, Plana gauzatzeko den urteetan martxan jarri beharreko konpromisoak eta baliabideak biltzen dituztenak. Helburuen ereduak dira, Planari norabide bateratua emateko moduan sortu eta abiarazi direnak. Erronkak edo emaitzak epe luzerago identifikatzen dituzte.

Ardatz estrategiko batean, honako hau topatuko dugu: helburu-multzo bat, xede eta helburu horiek erdiesteko hautatu diren ekintza-programa nagusiak, eta baliabideak esleitzeko sistemarik garrantzitsuenak. Helburu horiek koherenteak izango dira elkarren artean; hartara, ardatz-maila bateko helburuak erdietsiz gero, hala ardatz estrategiko hori nola Planaren azken xedea lortuko dira, edo litekeena horiek erdiestea izango da.

Eskarmentuari jarraituz, hobe dugu helburu gutxi izatea eta funtsezko gaitan ipintzea arreta. Beti joko dira kontzeptu orokortzat, horrek estrategia bideratuko du eta.

Arestian adierazi diren aurrekariak eta dagokion kapituluan egin den diagnostikoa aintzat hartuta, Plan honetan honako ardatz estrategiko hauek jaso dira:



1. Lanbide Heziketa, Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren euskarri

Ardatz honetan, prestakuntza-eskaintzaren (materia, metodologia...) eta sektore produktiboen beharren arteko lotura dakarten helburuak bildu dira. Horretarako, S3an lehentasunezkoztat jo diren arloak bereziki hartu dira kontuan, bai eta bertan identifikatutako erronkak ere; hau da, prestakuntza espezializatua, enpresekiko lankidetzaren Lanbide Heziketari begira, nazioartekotzea, ekintzaitza... Ildo horretako ekintza orotan prestakuntza-eskaintza malgutzeko printzipioa izango da nagusi.



2. Balioa ematea gure gizartearen kohesioari eta iraunkortasunari

Ardatz honetan, gure Komunitatearen kohesio sozialarekin eta lurraldeko kohesioarekin lotuta dauden helburuak eta jarduketa-neurriak jaso dira; horretarako, aintzat hartu dira sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen behar guztiak, bai eta pertsonen, banakako bizi-interesen eta aniztasunaren tratamendu espezifikoan ikusitako beharrak ere. Ardatz honetan, orobat, heziketa-zentron, kualifikazio-zentron eta enplegu-zentron arteko sare-lana egokitzeko eta hobetzeko sistematika ere jaso da.




3. Lanbide Heziketa indartzea eta etengabe eguneratzea

Azkenik, ardatz honetan bildu diren helburuak eta jarduketa-neurriak beharrezkoak dira zeharka, egitura horiek enpresen eta bertan prestakuntza jasotzen duten pertsonen beharretara egokitzeko. Hemen jasotzen diren helburuak eta ekintzak honako alderdi hauekin daude lotuta: prestakuntza-espezialitate berriak, berrikuntza metodologikoa, zentro-eredu berriak, irakasleen etengabeko prestakuntza eta eguneratzea, eta horretarako beharrezkoak diren langileak, azpiegiturak eta ekipamenduak izateko inbertsioak.

Hala, Planean sortzen den matrizean, adierazi diren ikuspegiak lotuta geratzen dira:

Ardatzak Ikuspegia



Une horretatik aurrera, helburuak zehaztea plangintza estrategikoaren prozesu osoko etapa giltzarria da. Helburuak gure gizarteak etorkizunean horietara joko duen epe ertaineko xedeak dira; horiek epe laburrera erdietsi nahi dira, ardatz estrategikoak zehazten eta ulertzen laguntzen duten neurri edo jarduketaren bitartez.

Horien jarraipena eta ebaluazioa errazteko, denek argiak, bideragarriak eta errealistak izan behar dute. Kuantifikatuta egongo dira, eta neurtzeko moduak izango; orobat, denbora-tarte egokiak esleituko dira, eta barne-koherentzia egongo da detektatutako arazorik garrantzitsuenen eta horiek konpontzeko planteatutako helburuen artean.



ERDIESTEKO HELBURUAK ETA GARATZEKO JARDUKETAK

Atal honetan, ardatz estrategiko bakoitzerako, erdietsi beharreko helburuak eta horretarako garatu beharreko jarduketak jaso dira.

Helburuak zehaztea plangintza estrategikoaren prozesu osoko etapa giltzarria da. Helburuak Nafarroako Lanbide Heziketak epe ertainean horietara joko duen xedeak dira; horiek epe laburrera erdiesteko lan egiten hasiko gara, ardatz estrategikoak zehazten eta ulertzen laguntzen duten neurri edo jarduketan bitartez.

Horien jarraipena eta ebaluazioa errazteko, denek argiak, bideragarriak eta errealistak izan behar dute. Kuantifikatuta egongo dira, eta neurtzeko moduak izango; orobat,

denbora-tarte egokiak esleituko dira, eta barne-koherentzia egongo da detektatutako arazorik garrantzitsuenen eta horiek konpontzeko planteatutako helburuen artean.

Planteatu den helburu bakoitzerako, emaitzen arrakasta deskribatuko duten adierazleak (kopuruei eta kalitateari begira) eta garatu beharreko jarduketak identifikatu dira, oinarritzko deskribapen batekin eta kronogramarekin batera.













I. ARDATZA

Lanbide Heziketa, Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren euskarri

Ardatz honetan, erdietsi beharreko helburuak eta horretarako garatu beharreko jarduketak jaso dira. Prestakuntza-eskaintzaren (materia, metodologia...) eta sektore produktiboen arteko lotura dakarte, eta Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian lehentasunezko zat jo diren arlo produktiboen beharrak.












Helburua: Lanbide Heziketako baliabideen % 80 bideratzea Nafarroa S3 estrategian lehentasunezko zat jo diren jarduera ekonomikoko arloetara.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Lehentasunezko jardueren arloetara bideratzen den hasierako Lanbide Heziketako aurrekontuaren ehunekoa.		% 60	% 70	% 75	% 80
• Arlo horietako prestakuntza-zikloak egiten ari diren ikasle-kopurua.		7622	8170	8872	9340
• S3ko arloekin lotuta dauden profesionaltasun-ziurtagirien ikastaro-kopurua.		60	70	75	80

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
• Nafarroa S3 strategiako arloekin lotuta dauden ziklo, ikastaro eta prestakuntza-espezialitate berriak sortzea eta eskaintzea.					
<i>Deskribapena: Jarduketa honen ondorioz, hasierako eta enplegura bideratutako Lanbide Heziketako zikloen eskaintza handitu eta egokituko da; zehazki, estrategian lehentasunezko zat jo diren sei arloetan.</i>					
• Arlo horiekin lotuta dauden Lanbide Heziketako zikloen eta enplegurako prestakuntza-ikastaroen curriculumak etengabe eguneratzea.					
<i>Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketako eta enplegurako prestakuntza-ikastaroen gaiak enpresek eskatzen dituzten teknologiarara eta ezagutetara egokitzea. Horren ondorioz, gaiak etenik gabe berrikusiko dira.</i>					
• Irakasleak eta lan-arloko adituak lankidetzan aritzea, S3an identifikatutako espezializazio-arloetan eguneratzeko.					
<i>Deskribapena: Irakasleek ikasleei transmititzen dizkieten ezagutzak ahalik eta eguneratuena izan daitezten, neurri honen bidez lan-arloko adituekiko lankidetzara erraztu nahi da, eta aditu egokienak bilatuko dira Lanbide Heziketako irakaskuntza eta ikasleen prestakuntza hobetzeko.</i>					


















Helburua: Prestakuntza espezializatua bultzatzea eta arintzea, sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen beharretara egokitzeko.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako zentroetan enplegura bideratuta egiten diren ikastaroetako parte-hartzaile kopurua.		720	820	910	1000
• Graduondoko espezializazio-ikastaro kopurua.			2	4	6

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza-jarduketak egokitzea, lan-merkatuko eskaerei eta aukerei bidez erantzuteko: edukiak, iraupena, modalitateak... <p><i>Deskribapena: Enplegura bideratuta dauden prestakuntza-ekintzetan, enpresen prozesu produktiboa nola antolatzen den hartu behar da kontuan, ekintzei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Horrenbestez, prestakuntza-hornitzaileek malgutasunez erantzun behar diete prestakuntza-profil berriei; hau da, eskaintza-modalitateak lan-merkatuaren eskaeretara moldatu behar dira.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Laburtzea enpresetan enplegura bideratuta egiten diren prestakuntza-ekintzak martxan jartzeko izapide administratiboaren iraupena. <p><i>Deskribapena: Enplegura bideratuta dagoen prestakuntzaren kudeaketa erraztu behar da, deialdiekin lotuta dauden izapide administratiboak arinduz.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntzako eta enpleguko administrazioek enpresen eta heziketa-zentron arteko lankidetzaren bultzatzea, proiektu bateratuak garatzeko. <p><i>Deskribapena: Horren ondorioz, horrelako proiektuak egiteko deialdiak sortuko dira; orain "enplegua sortzeko konpromisoa dakarren prestakuntza" deritzonaren antzekoak izango dira. Neurri hau hurrengoarekin lotuta dago; horren bidez, prestakuntza espezializatuko hirugarren maila bat gehitu nahi da arlo estrategikoetan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Espezializatorako hirugarren maila bat txertatzea goi-mailako zikloetan; hartara, eskatzen den gutxieneko ikasle-kopurua murriztea arlo estrategikoetako prestakuntza-ekintza espezializatuetan. <p><i>Deskribapena: Prestakuntza-espezialitateen harira, oinarrizko ezaugarria da martxan jarriko direla enpresen eskaera espezifikoaren eta inguru produktiboaren beharren arabera. Nafarroako enpresen ehun produktiboaren neurriari begira, eskaera ez da oso handia izango. Prestakuntzaren arloko ahaleginarekin batera, prestakuntza hori eskatzen duten enpresek ere ahalegina egin beharko lukete; hau da, prestakuntza DUALAren konpromisoa hartzea, edo espezialitate horietako ikasketak amaitzen dituzten ikasleak kontratatzeke konpromisoa.</i></p>					















Helburua: Enpresek ikasleen praktikekin eta prestakuntza dualarekin duten konpromisoa indartzea.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Lantokietan trebatzen ari diren ikasleak hartzen dituzten enpresa-kopurua.		1530	1650	1750	1800
• Prestakuntza DUALA egiten duten enpresa-kopurua.		375	390	400	425
• Prestakuntza DUALean diharduten ikasle-kopurua.		600	700	800	950

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Enpresa publikoak inplikatzeko praktikekin ari diren ikasleen harreran eta prestakuntza DUALeko programen martxan jartzea. <p><i>Deskribapena: Neurri honen bidez ziurtatu nahi dira Plan honetan sustatzen den enpresetako prestakuntza praktikoaren ereduarekiko kongruentzia eta konpromiso publikoa, eta eredu izan gainerako enpresentzat.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Lehiaketa publikoen esleipenean edo enpresei diru-laguntza publikoak emateko prozesuetan, kontuan hartzea ea lankidetzan dagoen heziketa-zentroetako eta prestakuntza-programetako ikasleek praktikak egin ditzaten. <p><i>Deskribapena: Asmoa da gastu publikoaren eta Plan honetan sustatzen den enpresetako prestakuntza praktikoko ereduaren arteko kongruentzia indartzea. Neurri honen ondorioz, eta klausula sozialen ereduari jarraituz, esleipenen baremoetan puntuazio espezifiko bat xertratuko da, administrazioarekin prestakuntza-praktiketarako hitzarmenak sinatuta dituzten enpresak saritze aldera.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Enpresetako prestakuntza-praktikak malgutzea, sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen eskaeretara eta aukeretara moldatzeko: ordutegiak, datak, iraupena... <p><i>Deskribapena: Enplegura bideratuta dauden eta lantokietan gauzatzen diren prestakuntza-ekintzetan, enpresen prozesu produktiboa nola antolatzen den hartu behar da kontuan, ekintzei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Hartara, enpresek eta heziketa-zentroek heziketa praktikorako ordutegi, egun eta data aproposenak adostu ahal izango dituzte.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza- eta bidelaguntze-ekintza espezifikoak ezartzea enpresen barruan praktiketako eta prestakuntza dualeko tutore lanak egiten dituztenentzat. <p><i>Deskribapena: Asmoa da prestakuntza- eta bidelaguntze-ekintzak martxan jartzea, behar diren ezagutzak, trebeziak eta jarrerak transmititzeko enpresetan praktiketako tutore-lanak egingo dituzten pertsonari. Egokiena izango litzateke horri buruzko mintegiak antolatzea aldi berean, eta erreferentziako irakasle bat finkatzea, praktiketako tutoreek harengana jo dezaten zalantzak argitzeko. Horren ondorioz, langileak kontratatatu beharko dira prestakuntza- eta bidelaguntze-zeregin horiei heltzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Pizgarri fiskal bat martxan jartzea, enpresetako praktiketako tutoretza-lanak bultzatzeko. <p><i>Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketan laguntzen duten enpresei laguntzea fiskalitatearen bitartez</i></p>					













Helburua: Lanbide Heziketaren bitartez, enpresak nazioartekotzen laguntzea.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Atzerrian egonaldiak egiten dituzten ikasle-kopurua.		210	260	260	280
• Atzerrian egonaldiak egiten dituzten irakasle-kopurua.		15	25	45	60
• Nafarroan prestakuntza-praktiketan diharduten atzerriko ikasleak onartzen dituzten enpresa-kopurua.		20	60	100	120

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen eta ikasleen hizkuntza-kompetentziak indartzea. <p><i>Deskribapena: Ekintza honen ondorioz, hizkuntza-prestakuntza hobetu behar da, Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleek B1 maila lor dezaten erdi-mailako zikloetan, eta B2 maila, goi-mailakoetan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-praktiken alorrean lankidetzan aritu nahi duten enpresen eta zentroen nazioarteko sarea handitzea. <p><i>Deskribapena: Asmoa da zenbait herrialdeetako zentro eta enpresekin hitzarmen berriak formalizatzea, atzerrian prestakuntza jasotzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen eta ikasleen nazioarteko truke-ekintzak eta prestakuntza-egonaldiak areagotzea bi noranzkoetan. <p><i>Deskribapena: Asmoa da irakasleen eta ikasleen prestakuntza-egonaldiak areagotzea; hau da, Nafarroako irakasle eta ikasleak atzerrian, eta atzerriko irakasle eta ikasleak, Nafarroako zentro eta enpresetan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko programa eta proiektuetan parte hartzea, tokiko eta atzerriko erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan. <p><i>Deskribapena: EBk sustatu egiten du zenbait eskualdeetako ekimen publiko eta pribatuen arteko sare-lan kolaboratiboa, programa operatibo ugariren bidez. Ekintza honen ondorioz, prestakuntzan eta enpleguan diharduten Nafarroako eragile publikoek horrelako hainbat programatan hartuko dute parte, eta parte-hartze hori finantzatu beharko da.</i></p>					

Helburua: Sormena, ekintzaile-izaera eta berrikuntza indartzea Lanbide Heziketan.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Arlo horretan martxan jarri diren prestakuntza-ekimen kopurua.		5	7	7	7
• Lanbide Heziketako Nafarroako ikasleek Komunitatetik kanpo lortu dituzten sariak eta aitortpenak.		1	1	2	3
• Berrikuntza teknologikoko proiektu-kopurua.		10	13	13	15

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak sustatzea ekintzailetzaren, sormenaren eta berrikuntza teknologikoaren arloetan. <p><i>Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketako zentroek proiektu berriak egitea arlo horietan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Zeharkako kompetentzietako prestakuntza sustatzea: ardura, bezeroei eta emaitzei erreparatzea, taldean lan egitea, kompetentzia komertzialak, etengabeko ikaskuntza, erresilientzia, plangintza... <p><i>Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketako ikasleek zeharkako kompetentziak indartzea ikasketa-prozesuan, berrikuntza pedagogikoa erabiliz.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen kompetentzia digitalak sendotzea. <p><i>Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketako ikasleek behar besteko prestakuntza izatea kompetentzia horietan, hala ordu-kopuruari nola kalitateari begira; izan ere, kompetentzia digitalak ezinbestekoak dira gure sistema produktiboan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako ikasleek enpresetara bisitak egin ditzaten sustatzea. <p><i>Deskribapena: Asmoa da ikasleek bisitak egiteko ekintzak areagotzea; horretarako, ate irekien jardumaldiak egin daitezke enpresetan, bisitak erakustaldiak egiteko, aurrez aurreko tailerrak...</i></p>					

2. ARDATZA:

Balioa ematea gure gizartearen kohesioari eta iraunkortasunari.

Ardatz honetan, gure gizarteko lurralde-kohesioarekin eta kohesio pertsonalarekin lotuta dauden helburuak eta neurriak jaso dira, Plan honek lagungarri izan behar baitu kohesio-mota horiek sendotzeko.










Helburua: Ziurtatzea Lanbide Heziketak Komunitateko jarduera ekonomikoko arlo guztietako kualifikazio-beharrei erantzungo diela.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Hezkuntza Departamentuak ematen dituen espezialitate profesional kopurua.		115	118	120	122
• Eskuragarri dauden enplegurako prestakuntza-eskaintza kopurua.		223	230	240	250

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Hasierako prestakuntza eta enplegura bideratutako prestakuntza urtero berrikustea, ekonomiako eta lurraldeko arloetako beharretara moldatze aldera. <p><i>Deskribapena: Asmoa da eskaintzen diren prestakuntza-ekintzak eta lan-merkatuko benetako beharrak bat datozela ziurtatzea. Horrenbestez, denbora eta adituak behar dira lan horri gogoz heltzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Aditu-talde bat sortzea, hasierako Lanbide Heziketako eta enplegura bideratutako prestakuntzaren katalogoko curriculumak aldiaren behin aztertze-ko, sektore produktiboaren eta zerbitzuen sektorearen beharretara egokitze aldera. <p><i>Deskribapena: Eskaintzen diren prestakuntza-ekintzak eta lan-merkatuko benetako beharrak bat datozela ziurtatzeko, eraginkorrena eta berehalakoena da behar horiek hoberen ezagutzen dituzten pertsonekin harremanetan jartzea, behar horiek dituzte eta. Hori dela bide, talde horretan produkzioaren eta giza baliabideen arloetako ehun bat aditu arituko dira. Neurri honen barruan, aditu-taldea dinamizatuko da; zehazki, urtean jardunaldi baten deialdia egingo da eta inkesta edo elkarrizketa arin bat erabiliko da.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Hasierako eta enplegura bideratutako prestakuntzako ikastaroak egin dituzten pertsonen lan-egoeraren azterlana egitea urtero, eta egoera hori lan-merkatuko eskaerekin lotzea, baliabideak berresleitzeko. <p><i>Deskribapena: Neurri honek lagungarri izan behar du eskaintzen diren prestakuntza-ekintzak eta lan-merkatuko benetako beharrak bat etor daitezen; horretarako, aipatu azterlanak egingo dira aldiaren behin. Hartara, baliabide ekonomikoak bideratu beharko dira arlo horretako espezialistak kontratatzeko.</i></p>					













Helburua: Eskaera dela eta, Lanbide Heziketako ikasketak ziurtatzea eremu geografiko jakin batzuetan.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Abian diren hasierako Lanbide Heziketako taldeen ehunekoa, Iruñetik kanpo.		28	29	31	33
• Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa, Iruñetik kanpo.		31	31	32	33

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-eskaintza eta enpresetako praktiken eskaintza areagotzea Iruñerriatik kanpo, eta hasierako prestakuntza-ekintzak abiarazteko behar den gutxienerako ikasle-kopurua murriztea. <p><i>Deskribapena: Neurri honen ondorioz, zikloak eta prestakuntza-ekintzak ezarri beharko lirateke; horrez gain, hitzarmen berriak formalizatu beharko lirateke enpresekin, praktikak egiteko, eta Iruñerriatik kanpoko herrietako zailtasun demografikoak apaldu. Horrenbestez, komenigarria izango litzateke hasierako prestakuntzako zikloak eta ekintzak abiarazteko eskatzen diren ikasleen ratioak beheratzea.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza indartzea, prestakuntza-ibilbide osoak euskaraz egon daitezen. <p><i>Deskribapena: Lanbide Heziketa euskaraz ere emanez gero, aurreko heziketa-etapetan euskaraz aritu diren ikasleei euskarazko prestakuntza-ibilbide osoak eskaini ahal izango zaizkie. Era berean, mesedegarria izan daiteke eremu geografiko jakin batzuetako kohesio soziala indartzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako online eskaintza modu mailakatuan handitzea. <p><i>Deskribapena: Lanbide Heziketako online eskaintzak inguru geografikoan eskaintzarik ez duten herrietako pertsonen prestakuntza-beharrei erantzuten die; horrez gain, oso garrantzitsua da kualifikatu edo birkualifikatu nahi duten langileen beharrei ere erantzuten diela, beren eguneroko jarduna aurrez aurreko eskaintza arautuarekin bateratu ezin badute.</i></p>					

Helburua: Lanbide Heziketa amaitzen duten ikasle-kopurua handitzea.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak (1. maila) amaitu gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoa.		47	35	25	15
• Erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak (2. maila) amaitu gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoa.		25	20	15	10
• Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketak (3. maila) amaitu gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoa.		16	13	10	5
• Gauzatu diren bigarren aukerako proiektu-kopurua.			2	3	4

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<p>• Heziketa-zentroek ikasleekin eta familiekin duten harreman pertsonalizatua areagotzea profesional espezializatuen bidez, eta irakasle gehiago aritzea orientazio eta laguntza pertsonalizatuko ekintzetan.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri honek zeregin horietan arituko diren profesionalak kontratatzea dakar.</i></p>					
<p>• Gizarte-hezkuntzako profesionalak txertatzea, ikasketak ez uzteko esku-hartzeak garatze aldera.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri honen ondorioz, ikasleek ikasketak utz ez dituzten lanean diharduten profesional gehiago behar dira. Gainera, beste espezialista batzuek ere parte hartuko dute, eta ez dira zertan mugatu heziketa-zentro barruko kontuetara soilik.</i></p>					
<p>• Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntzako Departamentuaren arteko koordinazioa indartzea prestakuntza-prozesuen uztea behartzeko, bi arloen arteko ibilbide koordinatuen mesedetan.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri hau gauzatzeko, lan-protokolo bateratuak egin daitezke, eta bi departamentuetako teknikariek esperientziak trukatzeko saioak antolatu.</i></p>					

Helburua: Prestakuntza kolektibo bakoitzaren beharretara moldatzea, laneratzean lagungarri izateko.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Lanbide Heziketan diharduten emakumeen ehunekoa.		37	40	43	45
• Hasierako Lanbide Heziketan matrikulatuta dauden hezkuntza-premia bereziko pertsonen ehunekoa.		3	4	5	6
• Enplegura bideratutako ekintza-kopurua desgaitasuna duten pertsonentzat.			2	4	6
• Konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozesuetan parte hartu duten pertsona-kopurua.		200	250	300	300

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<p>• Bi generoen berdintasunezko presentzia bultzatzea prestakuntza-familia eta -espezialitateetan.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri honen barruan, komunikazio-ekintzak eta gizartea sentsibilizatzeko ekintzak egin behar dira, Hezkidetzaren Planari jarraituz. Halaber, ekintza horiek 3. ardatzean aurreikusitako komunikazio-jarduketetan txertatu behar dira.</i></p>					
<p>• Hitzarmenak antolatzea erakunde sozial espezializatuekin, premia bereziak dituzten pertsonen prestakuntza jaso dezaten, enpresetan praktikak egin ditzaten eta enpresetan sar daitezen.</p> <p><i>Deskribapena: Hitzarmen horietan, bidelaguntze espezializatuko ekintzak jaso behar dira, eta aipatu erakundeek eskainiko dituzte.</i></p>					
<p>• Neurri egokiak abiaraztea, informazioa emateko, orientatzeko, prestakuntza eskaintzeko eta lan-bitartekaritzako ekintza guztiak balia daitezkeela ziurtatzeko.</p> <p><i>Deskribapena: Ondorioz, Lanbide Heziketan eta enpleguan parte hartzeko orientazio-gida bat sortuko da, baita kolektibo horiei informazioa emateko eta orientatzeko ekintza espezifikoak ere, Aniztasunaren trataerarako Plan Estrategikoan (2017-2018 eta 2020-2021) aurreikusitakoari jarraituz.</i></p>					
<p>• Konpetentziak egiaztatzeko prozedura sustatzea, langileak birkualifikatu eta prestakuntza-gabeziak detektatzeko.</p> <p><i>Deskribapena: Egiaztatze hori erraztu eta arintzeko, aldi behingo prozesuak abiarazi behar dira enprekin lankidetzan.</i></p>					

Helburua: Sarean lan egitea, bizitzan zeharreko prestakuntzako eta kualifikazio profesionaleko jarduketaren koordinazioa hobetze aldera.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Zentro integratuetako gizarte-kontseiluen bilerak.		28	32	36	40
• Nafarroako Kontseiluaren edo batzorde delegatuen bilerak.		7	13	16	16

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<p>• Unitate bat sortzea, hasierako Lanbide Heziketako eta enplegura bideratutako prestakuntzako informazioa sortzeko eta zentralizatzeko.</p> <p><i>Deskribapena: Asmoa unitate hori sortzea da, eta Hezkuntza Departamentuaren nahiz Nafar Lansareren ezagutzak baliatzea. Arloko teknikari espezializatuak behar dira, informazio hori formatu digitalean lortu, moldatu eta bideratzeko gai direnak, pertsona orok erraz eskuratzeko moduan.</i></p>			■	■	■
<p>• Sare egonkorra antolatzea, orientazioan, informazioan, prestakuntzan eta lan-bitartekaritzan aditu diren eragile publiko eta pribatuek esperientziak eta ekintza-proiektu bateratuak truka ditzaten.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri honen bitartez, gai horietan aditu diren eragile guztien artean proiektu kolaboratiboak gauzatzeko bidea zabaldu nahi da. Horren ondorioz, laguntzen deialdi espezifikoak egin beharko da.</i></p>			■	■	■
<p>• Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseiluaren eta zentro integratuetako gizarte-kontseiluen jarduna bultzatzea, eta gizarte-kontseiluen jarduna zentrotik kanpoko alderdi teknikoetara bideratzea.</p> <p><i>Deskribapena: Asmoa Nafarroako Kontseiluaren lana indartzea da; horretarako, bilera-kopurua handituko da eta azpibatzaileak antolatuko dira, besteak beste. Orobat, zentro integratuetako gizarte-kontseiluen jarduna beste modu batean bideratu nahi da, enpresekin harreman handiagoa izan dezaten.</i></p>		■	■	■	■

Helburua: Lanbide Heziketako ikasleen artean, laneratzea % 80koa izatea.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako ikasketak egin dituzten ikasleen laneratzearen ehunekoa, ikasketak amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan. 		49	57	70	80

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Kualifikazioko, enplegarritasuneko eta laneratzeko ibilbide espezifiko-koen garapen sistematikoa egitea Lanbide Heziketako ikasketak egin dituzten pertsona guztientzat, eta horien barruan, informazioa emateko, orientatzeko, prestakuntza eskaintzeko eta lan-bitartekaritzako ekintzak jasotzea. <p><i>Deskribapena: Neurri honen helburua da ikasle guztiek zerbitzu hori erabili ahal izatea ikasketak amaitu eta hurrengo 6 hilabeteetan. Zerbitzuaren barruan, ekintza pertsonalizatu hauek gauzatuko dira: lan-merkatuari buruzko informazioa ematea, lan-orientazioa, enplegua modu aktiboan bilatzeko tekniketan prestatzea, enpresak aztertzea eta lan-bitartekaritza. Horiek guztiak enpresekin lankidetzan egingo dira. Horren ondorioz, laguntzen deialdi espezifikoak egin beharko da.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Ate irekien jardunaldiak antolatzea, enpresentzat heziketa-zentroetan eta ikasleentzat enpresentzat. <p><i>Deskribapena: Neurri honen ondorioz, heziketa-zentro guztiek horrelako jardunaldiak aurrerikusi beharko lituzkete beren egutegian. Era berean, horrelako bisitak jaso beharko liriateke praktikak egiteko enpresekin sinatzen diren hitzarmenetan.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Enpresek langileak sare sozialen bidez bilatzeko ekintzetan laguntzea. <p><i>Deskribapena: Neurri honen bitartez, lan egiteko hautagaien bilaketa erraztu eta arindu nahi da. Hartara, deialdiak egin beharko liriateke enpresa txikiek eta ertainek horrelako zerbitzuak martxan jar ditzaten, informazioa lortzeko eta komunikatzeko batik bat Internet erabiltzen duten belaunaldiei begira.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroen deialdiak egitea, enplegarritasun handieneko lanbideetako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratze aldera. <p><i>Deskribapena: Horrelako ikastaroek lehenetsunekoak izan behar dute Nafar Lansarek helburu horrekin egiten dituen deialdietan. Analiak eta azterlanak egin beharko dira epe ertainera enplegarritasun handiena duten lanbideak identifikatzeko.</i></p>					







> 3 ARDATZA:

Lanbide Heziketa indartzea eta etengabe eguneratzea.

Ardatz honetan bildu diren helburuak eta jarduketa-neurriak beharrezkoak dira egitura horiek eman nahi den prestakuntzaren beharretara egokitzeko.

Helburua: Baliabideak areagotzea azpiegiturak eta teknologiak Lanbide Heziketara moldatzeko.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Eraikuntza-obretako eta instalazioak berritzeko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (mila €).		2.576	1.090	9.320	3.000
• Ekipo teknologikoak erosteko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (mila €).		810	2.100	2.450	2.500

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Azpiegituretara, ekipamenduetara eta instalazioetara bideratutako aurrekontu-zuzkidurak handitzea. <p><i>Deskribapena: Neurri honen helburua da zentroek ondo funtzionatzeko eta Lanbide Heziketako zerbitzuak behar besteko kalitatea izateko behar diren puntako ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen gastuei erantzutea; hartara, zentroi esleitutako zeregin hauek egoki garatuko lirateke: prestakuntza, ikerketa, berrikuntza eta transferentzia.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> Enpresekiko lankidetzaren sendotzea, ekipamenduak modernizatzeko. <p><i>Deskribapena: Enpresetako eguneratze teknologikoaren erritmoa ezin da heziketa-zentroetan lortu. Asmoa da enprekin are estuago aritzea lankidetzan, eta horiek prestakuntzarako teknologikoki egokiak diren ekipoak ematea, une jakin batean produkzioan nahikoa ez direnak merkatuaren eskakizunak direla eta.</i></p>					

Helburua: Aarlo pedagogikoan etengabeko berrikuntza ziurtatzea.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia pedagogiko berriak erabiltzen diren zentroyen ehunekoa. 		75	85	95	100
<ul style="list-style-type: none"> • Taldeen ehunekoa gauzatu diren berrikuntza pedagogikoko programetan. 		8	20	35	50

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-hitzarmenak eratzea beste herrialde batzuekin, ikasleek atzerrian gauzatu ahal izan dezaten prestakuntzaren zati bat. <p><i>Deskribapena: Asmoa prestakuntza-hitzarmenak sortzea da, nazioartekotzeari begira, argi eta garbi. Hala, beste herrialde batzuetara zabaldu nahi da, ikasleen, irakasleen eta langileen heziketa- eta prestakuntza-gaitasunak hobetzeko, enplegarritasunaren harira.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia malguen erabilera, praktikak eta dinamikak bultzatzea ikasleen ikaskuntzaren mesedetan, eta ikasleen aniztasunari erreparatuta. <p><i>Deskribapena: Asmoa da arreta ikasleengan ipintzen den estrategia didaktikoak txertatzea: zeregin irekien proposamenak, ikaskuntzaren teoria konstruktibistak oinarri hartzea, arreta ikasleengan ipintzen duten esperientziak eta jarduerak, ikaskuntza kolaboratiboa, ikerketa eta deskubritzea.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Jardunbide egokien trukea sustatzea heziketa-zentroyen artean, eta bisitak puntako enpresetara. <p><i>Deskribapena: Erronka berriei begira, Lanbide Heziketako zentroyek hurbilketa berriak eta eguneratuak behar dituzte ezagutza transferitzeko; horretarako, enpresak eta hezkuntza arretaz aztertzea funtsezkoa da, bai eta ezagutza transferitzeko, berrikuntzak gauzatzeko eta teknologia baliatzeko jardunbide egokiak ere. Beraz, gogoeta eta azterketak egiteko elementu horiek baliagarri izan daitezke egungo eta etorkizuneko jarduketetarako.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntza pedagogikoko proiektuak egitea beste erakunde batzuekin batera. <p><i>Deskribapena: Jarduketa honen bidez, Lanbide Heziketako zentroyek enpresetara eta kanpoko beste eragile batzuetara hurbiltzeko aukera izango dute, eta ezagutza transferitzeko sistema egonkorak sor daitezke haien artean. Horren eraginez, ikastetxeek jakingo dute zein diren azken garapen teknologikoak eta antolakuntzakoak, eta ikasleen trebeziak hobetuko dira, inguruaren beharretara moldatuko baitira.</i></p>					

Helburua: Oraingoa baino Lanbide Heziketako zentrozen eredu malguagoa inplementatzea, inguruaren beharrei arin erantzuten diena.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Eredu berriarekin bat egindako zentro integratuen ehunekoa.		0	100	100	100

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<p>• Kudeaketa deszentralizatuko mailak areagotzea heziketa-zentroetan.</p> <p><i>Deskribapena: Oraingoa baino Lanbide Heziketako zentrozen kudeaketa autonomoagoa eta arduratsuagoa dakarren antolakuntza garatu behar da. Hartara, hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek parte har dezaten lagundu eta aukera eman nahi da, ardurak eta erabakiak hartzea sustatzeko, irtenbideak eraginkortasunez eta bizkor gauzatu daitezzen.</i></p>					
<p>• Lanbide Heziketako zentro integratuen antolakuntza-egiturak modernizatzea.</p> <p><i>Deskribapena: Neurri honen helburua da Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren mende dauden Lanbide Heziketako zentrozen antolakuntza eta funtzionamendua arautzea, eskaintza bateratzeko eta horren kalitatea handitzeko aukera ematen duen Lanbide Heziketako zentrozen sare egonkor bat sendotze aldera.</i></p>					
<p>• Enpresek eta beste erakunde batzuek Lanbide Heziketako zentroak erabil ditzaten sustatzea baliabide publikoak orain baino hobeto baliatzeko, Lanbide Heziketako zentroak erabiltzeko ordutegia luzatuz.</p> <p><i>Deskribapena: Asmoa da inguru produktiboarekin lankidetzan eta inplikatura lan egiteko eredu baterantz jotzea, honela: enpresen eta beste erakunde batzuen beharrei erantzunez; langileen prestakuntzan modu aktiboan parte hartuz; Hezkuntza Departamentuaren, Nafar Lansareren eta arlo horretan diharduten eragileen arteko lankidetzaren sustatuz; eta koordinazio-esparruak finkatuz, prestakuntzaren alorreko baliabide publikoei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.</i></p>					

Helburua: Irakasleen prestakuntza eguneratzea eta merkatu produktiboaren beharretara moldatzea etengabe.





Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
• Irakasleak eguneratzeko ekintza espezifiko kopurua.		25	40	50	55
• Enpresetan eguneratze-ekintzak egiten dituzten irakasle-kopurua.		12	50	150	200

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen prestakuntzarako baliabideak handitzea. <p><i>Deskribapena: Jarduketa honen ondorioz, irakasleen prestakuntzan inbertituko da Lanbide Heziketaren balioa handitzen dela eta merkatuko nahiz hezkuntza-sistemako aldaketen aurrean estrategikoki kokatzen dela ziurtatzeko. Gainera, etengabeko prestakuntza poz-, motibazio- eta osasun-iturri da irakasleentzat.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea unibertsitatearekin, zentro teknologikoekin edo beste administrazio batzuekin, Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza helburu. <p><i>Deskribapena: Ziurtatu behar da irakasleek etengabe eguneratzen dituztela arlo teknologikoko ezagutzak, arlo horretan abangoardian dauden pertsonen bidez, enpresen bidez edo hala espezializazio-ikastaroak nola berezko tituluak dituzten unibertsitateen bidez, enpresek prestakuntzaren munduan parte har eta lagundu dezaten, eta alderantziz.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntza pedagogikoa bultzatzea, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboen erabilera sustatuz. <p><i>Deskribapena: Asmoa da irakasleen jardunaren ahalmena berritu eta horri balioa ematea. Lehiakortasunari begira, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboen eta horretarako behar diren tresnen erabilera egunean izatea, irakasleei aukera ematen baitie egungo ikasleen ikaskuntza aktibo eta konstruktibora egokitzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleen birziklatze-aldiak edo egonaldiak finkatzea enpresetan. <p><i>Deskribapena: Asmoa da irakasleen birziklatze- edo mugikortasun-programak lotzea ikerketarekin, ezagutzak eta kompetentziak eguneratzearekin, eta enpresekiko lankidetzaren sareak finkatzearekin; horrenbestez, ezinbesteko egonaldiak finkatu beharko dira lan-errealitatearekiko lotura ez galtzeko, prestakuntza-erakundearen kalitatea hobetzeko eta Lanbide Heziketan elementu berritzaileak txertatzeko.</i></p>					
<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleentzako mintegiak egitea, jardunbide egokiak eta prestakuntza-esperientziak transmititzeko. <p><i>Deskribapena: Mintegiak lagungarri dira jardunbide egokiei buruzko gogoeta egiteko eta gainerako irakasleekin nahiz murgilduta dauden testuinguruarekin elkarrizketan aritzeko etengabe. Profesionalek ikasteko eta elkarri laguntzeko espazioa izan dadin jokatu behar dute; ondorioz, erreferentziako prozesu giltzarri bat izan daiteke, aurrera egiten eta hezkuntza-merkatuan lehiakor izaten lagunduko diena.</i></p>					





Helburua: Aurrera egitea Europak Lanbide Heziketarako finkatu dituen ikasleen ehunekoak lortzeko.

Eraginaren adierazleak	Erdietsi beharreko jomugak:	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketan diharduten ikasleen ehunekoa. 		31,2	37	42	46

Garatu beharreko jarduketak	Kronograma:	2017	2018	2019	2020
-----------------------------	-------------	------	------	------	------

• Lanbide Heziketaren komunikazio-plan bat egitea eta abian jartzea.    




Deskribapena: Komunikazio-plan bat egin, kudeatu, aplikatu eta betetzeak Nafarroako Lanbide Heziketa garatzea eta bizirik irautea ziurtatuko du, jakinik kanporantz islatzen duen irudiak, prestakuntza-zikloen berri emateak eta Foru Komunitateko enpresekiko lankidetzak baldintzatzen dutela. Lehiaketa bat kudeatu beharko da gai horretan aditu diren enpresekin.

• DBH eta Batxilergoko ikasleen bisitak sistematikoki antolatzea Lanbide Heziketako zentroetan eta enpresetan.    




Deskribapena: Jarduketa honen helburua da DBHko eta Batxilergoko ikasleen garapen bokazional eta profesionalerako lagungarri izatea: beren inguruko bidez erabakiak hartzen lagundu, eta Lanbide Heziketak nahiz enpresek eskaintzen dizkieten prestakuntza- eta lan-aukerak erakutsi.

• Toki gehiago sortzea laneratze handiena duten Lanbide Heziketako ikasketetan.    



Deskribapena: Nafarroako Lanbide Heziketaren barruan, inguruko lan-merkatuak zer behar dituen aztertu behar da prestakuntza-baliabideak optimizatzeko, eta aldi berean, efizienteak eta errentagarriak izateko. Horretarako, lan-aukera gehien dituzten zikloetan toki gehiago sortu beharko lirateke, ikasleen lehiakortasuna eta laneratzea hobetzeko. Informazioa lortu eta aztertu beharko da, orain zaila baita.

• Urtero, Lanbide Heziketako azoka egitea praktikak eskaintzen dituzten enpresekin batera, prestakuntza-eskaintzaren berri emateko.   

Deskribapena: Asmoa da Lanbide Heziketako eskaintza aurkezteko jardunaldi bat egitea urtero, ikasketa horietan interesa izan dezaketen pertsonentzat; hau da, gazteentzat, familientzat eta enpresentzat. Azokan, Lanbide Heziketako zentroen eta enpresen standak egongo dira; zentroenetan, heziketa-eskaintza aurkeztuko da, eta enpresenetan, ikasketa horiek dituzten pertsonak bilatuko dituzte, bai eta beren jarduera-ildoak aurkeztu ere. Erakargarria eta interesgarria izan behar du, Lanbide Heziketako ikasketak sustatu eta prestigioa emateko.

• Lanbide Heziketako Zerbitzuak informazio- eta eguneratze-ekintza espezifikoa garatzea Lanbide Heziketari buruz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat eta orientatzaileentzat; eta ekintza horiek irakasleak lanean hasteko eta zuzendaritza-taldeak prestatzeko ikastaroetan txertatzea.   

Deskribapena: Hezkuntzaren arloko orientazioa ikasleen ikaskuntza hobetzeko balio duen baliabide bat da; horrenbestez, garrantzitsua da behar besteko bitartekoak eta informazioa ematea prestakuntza-etapa guztietan zeregin horretan diharduten profesionali, Lanbide Heziketara bideratzeko orientazioa zuzena eta eguneratua dela ziurtatzeko.

• Orientazioa bultzatzea zentro integratuetan, eta haien jarduna ingurura zabaltzea, espezialitateetako irakasleen laguntzarekin.  

Deskribapena: Zentro integratuek erreferente orientatzaile izan behar dute inguruko sektore produktiborako eta prestakuntza-sektorerako. Hartara, Lanbide Heziketako eskaintza integratu eta hala giza baliabideak nola baliabide materialak errentagarri egin behar dituzte.



PLANAREN GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA BIDERATZEKO SYSTEMATIKA

Lanbide Heziketako Plan Estrategiko hau Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, Garapen Ekonomikorako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak sortu eta bultzatu dute, modu bateratu eta koordinatu batean. Beraz, hiru departamentu horiek Plana idazteko prozesuan parte hartu izanak frogatzen du Nafarroako Lanbide Heziketa hobetzea oso garrantzitsua dela Gobernuaren ekintzarako.

Horrezaz gain, eta adierazi den moduan, zuzenean inplikaturik dauden 300 eragile bakoitzari gehiagok hartu dute parte dokumentu honen diseinuan, beren iritzia emanda; batik bat, enpresen eta heziketa-zentroen ordezkariak izan dira. Era berean, Planaren edukia eta irismena aztertzeko, herritar guztiek parte hartzeko moduko prozesu bat bideratu da.

Neurriak abian jartze aldera, Plan honen esparrua Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia dela kontuan hartuko da, Lanbide Heziketa erronka estrategikotzat jotzen baitu (zehazki, 24. erronka estrategikoa da: Lanbide Heziketa enpresatik gertu egotea). Horrenbestez, Lanbide Heziketako Plan honen gauzatzeko maila Estrategiaren arrakastaren adierazleetako bat izango da.

Lehenik, Plana inplementatzeko ardura Nafarroako Gobernuan gai honetan diharduten unitate organikoena izango da; hau da, Eskubide Sozialetako Departamentuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuarena eta Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuarena. Biek ala biek nork bere jarduketara esparruan dihardu Planean, lankidetzan estuan; nolana ere, Nafarroako Gobernu osoaren babesa du Planak.

Edozein modutan, Lanbide Heziketako Plana behar bezala inplementatzeko, zuzenean inplikaturik dauden zenbait eragile-mota daude sisteman, eta haiek aldeko jarrera izatea behar-beharrezkoa da Plana ahalik eta hoberean gauzatzeko:

- **Eragile publikoak:** administrazio eskudunak, nor bere eskumenekin, Planaren inplementazioaren protagonista baitira.
- **Eragile pribatuak:** sektore ekonomiko-produktiboa, eragile sozialak eta hala heziketa-zentro nola aditu kolaboratzaileak.

Planaren ondorioz, eragile horiek guztiek ardurak hartu beharko dituzte beren gain, eta beraz, koordinazio- eta lankidetzaren mekanismo egokiak erabili beharko dira Plana ondo gauzatzen dela ziurtatzeko.

Hain zuzen ere, sistemaren honako elementu giltzarri hauek finkatu dira, parte hartzeko gobernantza koordinatua izan dadin Planaren kudeaketan:

- Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseilua: Lanbide Heziketaren arloko kide anitzeko organo aholku-emaile bat da, eta erakundeek nahiz gizarteak hartzen dute parte.
- Zentro integratuetako gizarte-kontseiluak: zentroetako partaidetza soziala bideratzen duten organoak dira, eta besteak beste, inguruko enprekin, erakundeekin eta beste entitate batzuekin harremana hasten dela ziurtatzen dute.

Nafarroa S3ko ereduari jarraituz, Plan honen abiapuntua da arrakasta eragile horien guztien inplikazioaren eta koordinazioaren mende dagoela. Beraz, administrazioaren zeregina ez da monopolizatzailea izango; aldiz, partaidetza erraztea eta bultzatzea da haren rola, eta ziurtatu behar du gogoeta- edo ekintza-prozesu hori bateratua, koordinatua, jarraitua eta elkarrekiko osagarria izango dela arestian aipatu diren eragileen eta gobernantza-elementuen artean.

Bestalde, enpresekiko harremanetan sakontzeko eta produkzio edo zerbitzurako eta berrikuntzarako giza baliabideen beharrak hobeto ezagutze aldera, egokitzen jo da **aditu-talde** bat sortzea; Nafarroako enpresetako prestakuntzan eta giza baliabideen arloan lan egiten duten zenbait arduradunek osatzen dute, produktzioaren zenbait sektoretakoak. Aditu-taldearen barruan, lan-batzordeak eratuko dira, eta aldian behin galdetuko zaie zer behar eta espezializazio aurreikusten dituzten beren langileen artean, haien enpresek lan egiten duten merkatuaren joera dela-eta sortzen zaizkien eskaerak oinarri hartuta. Aditu-taldeari eginko galderak eraginkorrak izan daitezzen, taldekideak inplikatzeko beharra dago, parte hartzeko eta erantzuteko mekanismoak eman behar zaizkie, eta galderen emaitzen berri eman.

Azkenik, Plan honen gauzatze-mailaren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak finkatu behar dira edozein erabaki operatibori babesa emateko, kudeaketa hobetzeko, garrantasuna areagotzeko, ondoz ondoko parte hartzeko prozesuak bideratzeko, esku-hartze publikoa legitimatzeko eta plangintza hau birbideratzeko.

Hala, Plan honetan aurreikusi diren jarduketan jarraipena egiteko, **aginte-taula** bat proposatu da; horren bitartez, gauzatze-mailaren bilakaera, ekintzen eragina

eta helburuak erdietsi ote diren aztertuko da. Lanbide Heziketaren Zerbitzua arduratuko da aginte-taula prestatu eta aldian behin eguneratzeaz. Aginte-taula gorago aipatu diren eragileei helaraziko zaie, eta Nafarroako S3 Estrategiaren Zuzendaritza Batzordeari ere bai.

Era berean, helburuak eta ekintzak modu argi, bidegarri eta errealistan adierazi dira, horien jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Behar den moduan kuantifikatu dira, eta neurtzeko modukoak dira; orobat, denbora-tarte egokiak esleitu dira, eta koherentzia dago detektatutako arazorik garrantzitsuenen eta horiek konpontzeko planteatutako helburuen artean.

Horren ondorioz, zenbait **jarraipen-adierazle** aurreikusi dira (Plan honen eranskinean jasota daude). Horien bidez, jardueren eta helburuen bilakaera jarraitu daiteke; orobat, kudeatzaileen, eragileen eta ebaluatzaileen zerbitzura daude, egokiak dira, garrantzitsuak, baliozkoak, fidagarriak, eraginkorrak, arinak eta interpretatzen errazak. Adierazleok biltzeko prozedura egoki zehaztu da, eta bilduko direla ziurtatu.

Aurreikusi den sisteman parte hartuko duten eragileen eta elementu giltzarrien multzoa grafiko honetan irudikatu da:





Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

